

TOKIKOM

2013ko apirila | 125. zenbakia

ai!kar!

txorierakaren

Joseba Butroe,
Euskaltzale
eta maisua



Ondo pasa jaietan!!!



Derio

Zurekin Aurrera!



~~X~~ Koltza Plaza, 2 - 4. D
48160 Derio (Bizkaia)
Tel.: 944 54 27 19

Estudios 10 Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behea
48160 Derio (Bizkaia)
Tel.: 944 54 50 19 ~~X~~



Jaietan be EUSKARA AHOAN!

Gozatu jaiak euskaraz!



Derio

SUGOI
TABERNA

11:00etatik aurrera zabalik



Goiko kalea, 2 - 48160 Derio - 94 454 16 07



OPTICA MODERNA

Erdiko kalea, 4
48160 Derio
Tel.: 94 454 37 99

a n e
i l e a p a i n d e g i a

solarium arin horizontala
duten zerbitzua
etengabeko ordutegia
hitzordua aurretik eskatuta

tel.: 94 454 35 80

Goiko kalea, 2 - 48160 Derio



electricidad derio elektrizitatea

Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

*Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta*

Aizkorri Kalea, 1 - Tel.: / Fax: 94 454 31 40 - 48160 DERIO (Bizkaia)





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Jon Legarreta, Garbiñe Larrauri, Jesus Pedrero, Jabi Agirre, Ander Lasa, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobietta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Irakurri, gozatu euskaraz



14 Ander Mateos



22 Derio eta Zamudioko jaiak

- 4 Eritxia**
- 5 Gutunak**
- 6 Laburrak eta albisteak**
- 12 "Irakurri, gozatu, oparitu" kanpaina**
- 14 Gaztea eta... Ander Mateos, gitarra-jotzailea**
- 16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 18 Joseba Butroe, euskaltzale eta irakaslea**
- 22 Derioko jaiak**
- 25 Zamudioko jaiak**
- 28 Elkartek... Loiuko "mendi" taldea**
- 30 Futbol euskaldunaren jaialdia**
- 31 Zorionak!**
- 32 Txorierri ezagutu... Ibilbidea, Lezaman**
- 34 Berbalagunen txokoa**
- 35 Aikorrizketan... Euskararekin ala euskaraz bizi?**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**





JON LEGARRETA
(Fisika Zientzietan doktorea)

Erusiako Cheliabinsk herrian sekula ahaztuko ez den eguna da otsailaren 15a, asteroide baten eztanda gertatu baitzen bertan, telebistako irudiei esker ia zuzenean ikusi genuenez. Eztanda egitean igorritako energia neurtuta jakin dugu asteroidea espazioko harri arrunt bat zela eta 17-20 metro eta 11.000 tonako masa zituela. Gainera, dirudienez, ehunaka meteorito sortu zituen asteroide hau aurretik ere pasatu zela Lurraren ondotik milaka urtez.

Kasualitatez, 50 metroko beste asteroide bat, 2012 DA14 izenekoa, pasatu zen egun berean Lurretik 28.000 kilometrora. Azken hori orain dela urte bat detektatu zen eta, haren orbita kalkulatu ondoren, Lurraren kontra talka egiteko arriskurik ez zegoela egiaztatu zuten zientzialariek. Baina zergatik ez zen lehenengo asteroidea detektatu, 2012koa detektatu zen moduan?

Asteroidea eguzkiaren norabidetik heldu zen Lurrera, eta ez zen detektatu teleskopio optikoek ezin dutelako eguzkiaren inguruko eremurik ikustatu. Dakigunez, meteoritoak eguzkiari orbitatzen ari zaizkion objektuak dira (NEO, Near Earth Object), Lurraren orbitaren inguruetan. Programa edo misio ezberdinak daude NEO horiek behatzeko: batzuk Lurretik detektatzen dira; eta beste batzuk, espaziotik satelite bereziak erabiltza. Argi dago misio horien beharra, are gehiago Errusian gertatutakoa ikusita, baina zoritzarrez murrizke-

tak ikerketaren arlo honetara ere heldu dira krisiaren eraginez, behintzat Estatu mailan.

Bestalde, noiz helduko da beste meteorito bat? Galderari erantzuna emateko eta Cheliabinsk herriko meteoritoaren antzeko beste bat topatzeko, atzera egin behar dugu denboran. 1908. urtean, 80 metroko bolido batek eztanda egin zuen Siberiako Tunguska herrialdean, Lurra jo baino lehen. Astronomoek gertaera hori hartu dute erreferentziazat, eta beste talka bat izateko arriskuaren batez bestekoa kalkulatu dute: 100 urterik behin. Hala ere, hori estatistiketan oinarritutako datua da, ezin baita zehaztu noiz izango den hurrengoa. Dena dela, ezin gara beldurrez bizi noiz jausiko ote zaigun meteoritoaren bat zerutik. Pentsatu behar dugu meteorito batek pertsona bat harrapatzeko probabilitatea pertsona horrek istripu bat izateko probabilitatea baino 200 aldiz txikiagoa dela. Beraz, zeruari begira lasai egon gaitzake, autoan goazenean baino lasaiago bai behintzat.

Argazki zaharrak

Gaur, AIKOR!en idazteko inspirazino bila nenbilela, lagun batek deitu deust liburu bat ixteko. Alabarenztzat baserritar jantzia egin gura dau eta ereduren bat gura dau kopiau. Ane Albisuren *Atoan* liburua hartu dot ixteko, eta, zabaldukeran, bertan Anek emondako argazki batzuk euki dodaz. Liburua argitaratzeagaz batera Ane Albisuk esan euskuzan berbak etorri jataz burura. Europako hainbat lekutako argazki zaharrak bilduta eukazan eta itandu euskun ea jakingo genduan esaten zeintzuk ziran euskaldunak han agertzen zirenetatik. Egia esan, danak bardinak zirala eretxi geuntsan.



GARBIÑE LARRAURI
(Udal euskaltegiko zuzendaria)

Arin argitu euskun Anek txapeletan eta abarketan erreparetako esanda, ostantze-ko guztia bardin-bardina zan eta.

Ehun urte baino gehiago ateratako argazkien ganean nabiltzue; baina, gaurko egunera ekarrita pentsaten hasi naz zerk ezbardinduko gintuzkean. Mundu globalizau honetan, argazkiak txapela eta abarka barik agertuko dira, punta punta-ko teknologiagaz, baina... jakingo leuke nonork esaten, agertzen diranak nongoak diran? ingelesak, espainiarrak... Oraingoa erantzuna ez da hain argia, kanpotik ez daukagu-ta ezer ezbardinik. Nik argi daukat ezbardindu egiten gaituen bakarra hizkuntza dana eta, kanpotik ikusten ez bada be, euskerea dala jantziten gaitue-na.

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Centro (Derecho)
Txorierri IMQ AEGON

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella

Milizia 6, beheko - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885 - www.txorierri.com

AM
FORMACIÓN Y TRADUCCIÓN

www.am-formacion.com info@am-formacion.com

Garmiotza 120 D
48150 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Erremendi 16
48150 BIONDIA
T: 94 453 64 08

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, AIKOR!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Euskal modernoak behar ditugu!

Gure kultura, hizkuntza, tradizioa, XXI. mendea eta euskal gazteria uztargarriak direla frogatu behar diegu geure buruari eta ondorengoei.

A zelako esaldi potoloa arratsalde euritsu honetarako! Gogoeta hau aspaldian dabil bueltaka nire buruan, euskaltasuna aldarrikatzeko, jaialdi batera "base-rritarrez jantzita" edo "arrantzalez jantzita" joateko deia egiten dela irakurtzean. Zeharo okerra eta arrakatsua, euskaltasuna eta "antzinako moda" omen dena nahastea, neure uste apalean.

Batetik, euskaltasuna edo euskaraz aritzeko harrotasuna ez delako aspaldiko mendeetan erabili omen ziren soinekoe-tan islatu behar. Euskal modernoak behar ditugu, soinean edozelako janzkera zein itxura apurtzailea dutela gure hizkuntza erabiltzen dutenak! Eta bestetik, hainbat gazte ari delako gure baserriak, belardiak eta arrantza-ontziak biziberritu nahian. Ikasketak horri begira eta gure lurra eta kultura defendatu nahi berrian, eta a zelako zortea!... piercingak dituzte, tatua-jeak, txapela eta mototsa azpian, arropa marka ezagunak, legginsak, koadrodun jakak eta mahonezko prakak jausita, gal-tzontziloak eta tangak agirian: baserritar peto-petoak!



Bukatzeko, eta sabela husturik, "euskal jantzi tradizionala" aipatzen duten deialdi egileak zoriondu nahi ditut, baina soilik hizkuntza era egokian erabiltzeagatik. Euskaraz bizitzeko apustua egin dugun XXI. mendeko itxuradunok "euskal modernitatea" euskal jaien deialdietara eramanez, aldarrikatu nahi dut... euskara antzinatek datorren arren, etorki-zuneko hizkuntza baita!

Amaia Rementeria

Elkartasuna, Argia-ko kazetariarekin

Hekimen Euskal Hedabideen Elkarte-ak elkartasuna agertu nahi dio Lander Arbelaitz Argia aldizkariako kazetariari, Aske-Gunea hustutzeko operazioaren barruan jasotako tratua dela eta.

Hekimeneko kide sortzaileetako bat da Argia aldizkaria, eta Hekimenen helburuetako bat da euskal hedabideen presentzia eta eragina handitzea gizartean. Horretarako, ezinbestekoa da gero eta informazio kalitatezkoagoa eskaintzea. Hekimenen ustez, Lander Arbelaitz informazio zuzena emateko ahalegin betean ari zen Ertzaintzak, eskuan zeukan akreditazioa kontuan hartu gabe, lurrera bota, astindua eman eta bertatik atera zuenean.

Hekimenek, gainera, guztiz ezegokitzat jotzen du Ertzaintzako buruek hartu zuten erabakia kazetariak gune itxi eta bereizi batean zedarritzeko. Kazetarien oinarritzko eskubideetako bat da informazioa ahal bezain hurbilen eta, batez ere, nahi duten ikuspuntutik eman ahal izatea. Hori da kazetaritza. Hori da gure lana.

Alberto Barandiaran, Hekimen-eko zuzendaria

GALAIISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3, SONDIKA

IRATXO
gozotegia
tarta pertsonalizatuak
trufak
txakak
pastelak
pastelak
Mikel Zarate, 2 - R. Lanza • SondiKA, 48150 • 94 453 80 80

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

LIBRERÍA SONDIKA LIBURUDENDA
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Okerrak zuzenduz

Aldizkariaren aurreko alean, Larrabetzuko osasun-zentro berriaren gaineko informazioa idatzi genuen seigarren orrialdean. Informazio horretan, Larrabetzuko alkatea Asun Etxebarria zela esan genuen, baina datua ez da zuzena: Asun Gaztelu da alkatea. Era berean, zinta Libe Loroño moztu zuela adierazi genuen, baina datu hori ere ez da zuzena, haren amak moztu baitzuen zinta, Libe Asuak.

Bestalde, Korrikaren argazki batzuk argitaratu genituen 30. eta 31. orrialdeetan. Hogeita hamargarren orrialdeko argazki-oin batean, irudian Garmitxa elkarteko kideak agertzen zirela esan genuen. Horretan ere akatsa egin genuen, argazkian Gure señoak Derioko elkarteko kideak agertzen baitziren.

Azkenik, Jesus Arregiri elkarrizketa egin genion 32. eta 33. orrialdeetan. Apirilaren 25ean ilargi-eklipsea egon zen eta Berbalagun egitasmoan parte hartzen dutenek ekintza bat antolatu zuten hura eta Saturno ikusteko. Elkarrizketaren sarreran ilargi-eklipse eta Saturnoren behaketa Arregik egingo zuela esan genuen, baina informazio hori ez da zuzena. Behaketa Jon Legarreta Aikor! aldizkariaren kolaboratzaileak egin zuen.

Unai Ibarra, Flandeseko eta Paris-Roubaix lasterketetan

Unai Ibarra sondikoztarra Belgikan eta Frantzia ibili da Urko Real eta Liher Agirre lagunekin. Txirrindulariek Flandeseko Biran (260 km) eta Paris-Roubaix Lasterketan (170 km) hartu zuten parte. "Prestigiorik handiena duten Europako ohiko probetariko batzuk dira. Lehenengo Aste Santuan egin genuen. Lana dela-eta, pazko-astelehenean itzuli behar izan ginen etxera, eta ostegunean Frantziara abiatu ginen, Paris-Roubaix lasterketan aritzeko".

Unairen esanetan, oso proba gogorrak izan ziren. Belgikan, bederatzi ordu egin zituzten bizikleta gainean; eta sei ordu, Frantzian. Gainera, hotza handia zegoen. "Brujasetik bi gradu zero azpitik zegoela atera ginen, eta Frantzian 5-6 graduko tenperaturak izan ziren". Haizeari ere egin behar izan zioten aurre, eta bidea galtzada-harrizkoa izateak zail bihurtu zituen lasterketa biak. "Gorputzatal guztiek sufritzen dute, eta kontu handiz ibili behar da bizikleta ez apurtzeko. Niri pedalaren ardatza apurtu zitzaidan Flandeseko lasterketan... Orokorrean, oso esperientzia polita izan da. Aldez aurretik ondo prestatu dugu geure burua eta hori oso lagungarria izan da". Proben giroari buruz, Flandesekoan 16.000 pertsonen parte hartu zutela azaldu digu, eta batzuei irabazi nahi zutela igartzen



zitzaien arren, gehienak lasai ibili zirela. "Paris-Roubaix lasterketan 1.600 lagun aritu ginen. Proba lasaia izan zen, jendeak hura amaitu nahi zuen, eta ez bizikleta apurtu".

Unai Goiherri sokatira taldearen tira-tzailea ere bada eta orain Euskadiko Txapelketa du buruan, "ea Europako Txapelketa joateko aukerarik dugun". Era berean, aipatu digu urrian Amsterdameko maratoian parte hartzeko asmoa duela, "eta haren ostean, bizikleta hartuko dut berriro".

FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoenak
Hantutegi ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - behea | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19

Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20

ANKAPALU
LARRABETZU
94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

TXORIERRI Inmobiliaria
Justo Aluria, 1 Sondika - Bizkaia
Tel./Fax: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net
Karguak gerta
ARREKULARITZA - TANATZIOA
ALOKATZEAK - ERKATZETZEAK
SALERKETEAK
SEGUROR BILBARRAKEN AGENTZIA

PELURERIA Estetika
94 455 81 44
Argutegi 2, behea Larrabetzu Bizkaia

Larrabetzuko osasun zentroa, gero eta hobe



Larrabetzuko osasun zentro berria joan den hilabetean jarri zen martxan, eta herriko lagunak poz-pozik azaldu dira azpiegiturarekin. Bertan erizaina eta medikua dituzte, eta, gainera, astean behin odola ateratzen da. Lehen, horretara, Galdakaoko ospitalera joan behar izaten zuten. "Askoz erosoagoa eta politagoa da... Hobe da, azken batean", esan digute paziente batzuek zentroko itxaron gelan. "Horrezaz aparte, gaur egun pribatutasun handiagoa dugu", aipatu du beste batek.

"Oro har oso gustura gaude eraikin berrian, baina gauzak hobetu ahal dira, eta horretan gabilta", esan digu Asun Gaztelu herriko alkateak. "Osakidetza gauza batzuk eskatu dizkiogu ahalik eta eskaintza handiena emateko: batetik, pediatria-konsulta eskatu diogu, herrian azken bolada honetan ume asko jaio direlako; eta bestetik, espero dugu administrazio-langile bat laster osasun zentroan aritzea. Horrek hitzorduak emango ditu eta oso mesedegarria izango da, batez ere, nagusientzat".

Julemendiren urteurrena

Julemendi Zamudioko herriko tabernak 30 urte bete ditu eta urteurrenaren haritik, apirilean, ekitaldi bat egin da haren aurrean. Zamudiokoa Euskal Herrian zabaldutako lehen herriko tabernetariko bat izan zen eta ekitaldian bere sorreraren inguruan egin ziren ahaleginak ekarri ziren gogora, baita urteetan ilusioz egindako ibilbidea ere. Azaldu zuten moduan, Julemendi elkargune bat zen eta handik herritar asko pasatu dira. Horientzat ere izan zituzten hitz batzuk. Grande Marlas-ka epaileak Zamudioko herriko taberna bi urtez itxeko agindua eman zuen 2006. urtean. Ekitaldian itxiera eta haren inguruan izan ziren gertaerak gogorarazi zituzten, eta kautelazko neurria agindu zenetik hona zazpi urte pasatu diren arren, Julemendik itxita jarraitzen duela salatu zuten. Ekitaldian 30 bat lagun batu ziren. Ostean, trikipotea eta herri bazkaria egin zituzten.

II. Herri Krosa

Loiuko Udalak herri krosa antolatu du bigarren aldiz ekainaren 2rako. Orotara bost kategoria osatuko dira parte-hartzaileen adinaren arabera. Izena emateko, mezu bat agindu behar da krossloiui@gmail.com helbide elektronikora eta bertan datuok ipini: izen-abizenak, herria eta adina. Iaz 800 lagunek hartu zuten parte lasterketan.

URAS
Estetika eta masajea
Alta Paboi Ugalde, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 473 746
Miturte, 15 behea
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Fax: 94 453 60 27

SARRIKOLA OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
1 lainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3 1orja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

HARATEGIA • URDAITEGIA
VICTOR
ARTISAU-ELABORAZIOA
Okela ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
txistorra, solomak...
Plater aurrekoizatu
Goiñ, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

Lezamako irudiak, webgune batean

Webgune berri bat sortu da orain dela gutxi: lezamairuditan.com. Egitasmoa Gaizka Peñafiel lezamarrak jarri du martxan eta han herriaren hainbat irudi batu ditu. Gazteak azaldutakoaren arabera, urteak daramatza Lezamako argazkiak batzen eta oso material gutxi dagoela topatu du, "iraganean oso argazkilaria gutxi izan zirelako edo bilketa lan eskasa egin delako". Webguneak hutsune hori betetzea du helburu. "Herriak badu zer dokumentatu iruditan, ingurua nolakoa zen hurrengo belaunaldiak ikus dezaten, eta guk ere herriko txokoak beste ikuspegi batetik ezagutzeko". Paisaiez gainera, ekimenak ere batu-ko dira webgunean, "horiek ere ondareak dira-eta". Bestalde, herritarrek aukera dute haien argazkiak webgunean eskegitzeko. Irudiak helbide elektroniko honetara agindu ahal dira: gaizkapenafiel@gmail.com. "Sakelako telefonoarekin ateratako argazkiak ere badira baliagarriak. Eta aspaldiko argazkiak badi-tuzte, horiek zaharberrituko ditugu galdu ez daitezen".



Derioko nagusien egoera aztertu dute

Derioko Udalak adinekoentzako behatoki bat jarri du martxan, herriko nagusien premia sozialak antzemateko. Egitasmoaren bidez, 75 urtetik 98 urtera bitarteko 230 lagunen egoera aztertu egin da. Inkestatuen % 62 emakumezkoak dira; eta % 38, gizonezkoak.

Nagusi gehienak, % 54, ezkontuta daude eta % 40 alargunak dira. Ikerketan parte hartu dutenen % 42 bakarrik bizi dira.

Inkestatu gehienek adierazi dute seme-alabekin, senideekin eta lagunekin harreman ona dutela. Hala ere, ia nagusien % 7k lagunik ez dutela esan dute, horiek hil direlako. Adinekoen % 96 sarritan ateratzen dira etxetik eta % 2k boluntario batek bisita jasotzen dute hamabost egunik behin. Bestalde, % 80k ez dute laguntzarik jasotzen etxeko gauzak egiteko, eta % 72k euren janaria prestatzen dute egunero. Era berean, % 70k ez dute laguntzarik erosketak egiteko orduan.

Ia inkestatu guztiek dute itxura ona eta haien etxearen garbitasuna ere bada egokia. Nolanahi ere, etxebizitzaren % 47ek mugikortasunari lotutako arazoak dituzte.

Nagusiek batez ere entzumen eta ikusmen arazoak dituzte, eta % 70ek ez du ibiltzeko laguntzarik behar. Inkestatuen % 7rengan gaitasun kognitiboaren

arazoak antzeman dira. Adinekoen % 77k emozio-egoera normala badute ere, gaitasunekoengan sentimendu hauek azaldu dira: bakartasuna, antsietatea, negarra eta beldurra. Azkenik, inkestatuen % 39k mendekotasun-egoera dute.



BASALBEITIKO TXAKOLINA

Basalbeitiko Txakolina
Denbora 100% txakolina

Goibetza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 45

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiak ikastaroak
Alaiak diren landak - Apolo zerbitzua
Sailto - Txangoak - Animalien hariketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48100 LEZAMA

URÉJOLA
JATETXEA

Aretxalde, 5
48196 LEZAMA
Tel: 94 455 64 83
Faxa: 94 455 50 94
www.urrejola.es
info@urrejola.es

Ezkontzak
Enpresa-bazkariak
Menu bereziak

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak



IX Euskal Astea

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak urtean antolatzen dituen ekitaldi era-kargarri eta garrantzitsuetariko bat da Euskal Astea. Aurtengoa bederatzigarrena da. "Euskarak egiten gaitu euskaldun" lelopean, ekitaldi sorta zabala prestatu dute maiatzaren 2tik 6ra bitarteko egune-tarako.

Garazi Hach Embarek-ek hitzaldia emango du maiatzaren 2an, egunean, arratsaldeko 7,30ean Zamudiotorren. Neska sahararra da, baita euskalduna ere, eta hitzaldian hainbat kontu azalduko ditu berari eta bere herriari buruz. Pirritx, Porrotx eta Marimototsek gozatzeko au-keramango die umeei hurrengo egune-an. Pailazoez *Sentitu, pentsatu, ekin!* ikus-kizuna eramango dute herriko kiroldegi-ra. Zapatu goizean egingo den ekintzaren helburua umeei herriko bazterrek ezagu-

tzea da. Hitzordua goizeko 11etan ipini dute Zamudiotorren. Leku horretan ere kantaldia eskainiko du Patxi Saizek ilun-tzeko 8,30ean. Sarrera doakoa izango da.

Maiatzaren 5ean, domekan, Bizkargi Eguna ospatuko da eta Lagatzukoek hara joateko irteera antolatu dute Arroeta mendi taldearekin batera. Plazatik goize-ko 9etan irtengo dira. Nolanahi ere, ume-ekin joango direnek Goikoelexalde Larra-betzuko auzoraino autoz joateko aukera dute, eta handik oinez Bizkargira. Haiek goizeko 10etan irtengo dira Zamudioko Eleixalde aparkalekutik.

Azkenik, maiatzaren 6an, iluntzeko 8etan, Jon Maiak zuzendutako *Gazta zati bat* dokumentala aurkeztuko da Zamu-diotorren. Hizlari Dani Oiarbide Nazioen Mundua ekimenaren kidea arituko da. Sarrera doakoa izango da.

Mintza Eguna irteera

Ekainaren 1ean Mintza Eguna izango da Elgoibarren. Izarra kultur elkarteak 50 urte beteko ditu aur-ten eta Euskal Herri osoko mintzala-gunak batu nahi dituzte herrian, elkartearen urteurrena ospatzeko. Txorieritik ere bidaia antolatuko da hara joateko. Elgoibarreko berbala-gunek eta Izarra elkarteak kideek hilabeteak daramatzate jaia presta-tzen. Besteak beste, ibilaldi gidatua, mintza-bermuta, bazkaria, sarien banaketa eta erromeria egongo dira. Gainera, bertsolariek, dantza-riek eta dultzaineroek girotuko dute eguna, eta sorpresaren bat ere izango da. Bazkarirako sarrerak 20 eurotan jarriko dira salgai eta auto-buserako txartela, 10 eurotan. Maia-tzaren 2tik 24ra eskura daitezke. Informazio gehiago: 635 75 35 95 eta txorierri.berbalaguna@gmail.com.

Txakolin Eguna

Txakolin Egunaren 9. edizioa ospatu zen Larrabetzun, apirilaren 7an. Nobedade nagusia brindisa izan zen: bertan Etxahun Lekue ber-tsolari larrabetzuarrak osatutako bertso berezi batzuk irakurri ziren. Ciriaco Dañobeitiak kortxoak kentze ofiziala egin zuen. Guztira 44 postu jarri ziren. Azokan Larrabetzuko eta Lezamako 11 txakolin egilek hartu zuten parte. Txakolinaz gainera, bertoko produktu batzuk ere jarri ziren salgai: fruta, barazkiak, gazta, ogia, eztiak, gozokiak...

LOTERIA LEZAMA

BONOLOA LOTERIA PRIMITIBA 1-X-2
SARITZARRA EUROMILIOIAK

GADONETAKO ETA ERREGETAKO LOTERIEN ERRESERBAK
ZERBITZUA, ENPRESENTAT, TABERNENTZAT, ETAB

ARITUALDE, 139 • 48196 LEZAMA (BIZKAI) • TELEFONUA/FAX: 94 455 64 87

48196 LEZAMA (BIZKAI) • 94 455 64 87

S.A.T. LEGU
SERVICIOS DE ASESORIA TECNICA

Tel: 94 455 64 87 • Fax: 94 455 64 98

pro audio

Mon 70CAB monitora

SONIDUAK ADITUAK

Txanem et. 15
48150 Sondika (BIZKAI)
944 533 375

www.proaudiosondika.com
jose@proaudiosondika.com

99,95 €

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea

Menú berriak asteburuetan • Egunduko menua eta karta
Elizateko plaza • Jantzeria eta elkartetoki
Itxialdiak • Jantziak

B.º Goralde, 1 • Tfn. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkai

KIMO
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gaitolza 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAI)

LEJARRENE JATETXEA

Gaztelatza auzua, 102 • LEZAMA • T: 94 455 66 46

Lezamako trenbide zaharra bide berde moduan berreskuratzea onartu dute Batzar Nagusiek

a: Bizi Txorierri taldea

Zorioneko dago Lezama trenbide zaharra berreskuratzearen aldeko mugimendua. Izan ere, hori osatzen duten Txorierriko taldeak aspalditik dabiltza ibilbide hori prestatzeko eskatzen, handik bizikletaz edo oinez joan ahal izateko. Eta Bizkaiko Batzar Nagusiek Bildu taldearen arauz besteko proposamena onartu dute, XIX. mendean Bilbo eta Lezama lotzen zituen trenbide zaharra bizikletaz egiteko ibilbide moduan berreskuratzea ahal izateko. Koalizio abertzalearen ustez, ibilbidea oso pizgarri garrantzitsua izan daiteke Txorierriko garapen turistikorako eta mugikortasunerako aukera berria eskaini dezake. Era berean, Done Jakue Bidearen barruan sar liteke.

Bizi Txorierri taldetik azaldu diguten arabera, albistea pozik hartu dute, baina zuhurtiaz ere bai. "Hiru urtetik hona zerbait lortu dugula esan daiteke. Txorierriko bidegorriaren proiektua egin da, eta, Batzar Nagusietan onartu baino lehen, Lezamako Trenbidearen aurre-proiektua ere bai. Baina biak betiko gera daitezke kaxoi batean gordeta, egungo krisia aitzakiatzat hartzen bada".

Hala ere, mugimenduak urte hauetan gauza asko lortu dituztela uste dute. "Gure lanari esker, jende askok eduki du ibilbideaz gozatzeko aukera. Zati batzuk guk geuk garbitu ditugu, eta azken asteotan Zamudioko Udalak ere bere laguntza eman digu. Egia esan, proiektuan jende asko inplikatu da, baina Zorribike taldeko Olanoren lana azpimarratu nahiko genuke, azkenengo martxak berari esker izan baitira izan direna". Horren

haritik aipatu digute, helburua bera baino, gauzarik inportanteena urte hauetan disfrutatu egin dutena izan dela: antzina-ko mapak, bidea ikertzea, "Desbrozadora" Eguna, martxak, tunela igeri egiten eta piraguz zeharkatzea...

500 lagun baino gehiago martxan

Bizi Txorierri, Zorribike, Arroeta eta Txirrin-txirrin elkarteek martxa bat antolatuta zuten martxoan Lezamako trenbide-tik. Ekintza arrakastatsua izan zen, bertan 500 ibiltarik eta 40 txirrindularik hartu baitzuten parte. Eguraldia lagun, antolatzailerik eta parte hartzaileek Santimami Derioko basilikatik Artxandan dagoen tunelera arteko ibilbidea egin zuten.

Santimami basilikatik hurbil dagoen hesi batetik pasatu, eta handik gutxira trenbidearen lehenengo aztarnak topatu

zituzten ibiltariak. Aztarnei jarraituz, Asua ibaira inguratu ziren. Ibaia zeharkatzeko, antzinako zubiaren ondoan dagoen pasagune bat erabili behar izan zuten. Beste 500 metro gehiago egin, eta autopistak trenbideari kendu zion tartera ailegatu ziren. Beraz, ibilbidea jarraitzeko, autopistaren azpitik pasatu behar izan ziren, harik eta Bidekruze auzora heldu ziren arte. "Hortik aurrera garbi ikusten da trenbidearen ibilbidea, Zamudioko Udalak bideak garbitu ditu-eta". Artxandako errepidea zeharkatu ostean, pista zabal batek tunelera iraman zituen, eta han trikitiaren soinuak girotutako hamaiketakoak izan zuten. Parte hartzaileetarik batzuk tunelera sartu ziren. "Laurehun metrora Bilboko paisaia ederra dago, Via Vieja kalearen amaiera, Guggenheim museoaren gainean".



Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unisex ileapaindegia
Estetika
Ortoregi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

Jantxeta **SAN ISIDRO**

ETIKETATUTAKO ESPEZIALIZATUA ETA ETIKETATUTAKO GAZTEGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzuak - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukalderitza tradizionala

Telefonoa 94 454 03 00
Fax 94 454 54 50

Mungialde etorbidea, 25
48100 DERIO

t o k a k

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

EUSKAL ASTEA

Zamudion 2013

EUSKERAK EGITEN GAITU EUSKALDUN



lanean



ametsetan



olgetan

maiatzak 2 eguna

19:30: HITZALDIA, "SAHARA, BARRUTIK"

GARAZI HACH EMBAREK, saharar euskaldun ekintzailea, Dorretxean

maiatzak 3 barikua

19:00: PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS,

"Sentitu, pentsatu, ekin!" Kiroldegian

maiatzak 4 zapatua

11:00: IBILALDI DIDAKTIKOA UMEENTZAT

"Zamudio, zure herria ezagutu"

Dorretxetik hasita

20:30: KANTALDIA

PATXI SAIZ

Dorretxean. Doan

maiatzak 5 domeka

9:00: XIV. MENDI IBILALDIA

"Zamudiotik Bizkargira" Plazatik hasita.

Bueltan Goikoelexaldetik

Bizkaibusek 15:00etan urtengo dau

Arroeta mendi taldeagaz batera antolatuta

10:30: BIZKARGIRA UMEEKAZ

Kotxeetan joango gara, Zamudioko

Eleixalde parkinetik, Goikoelexaldera,

eta handik, oinez Bizkargira

maiatzak 6 astelehena

20:00: DOKUMENTALA

"GAZTA ZATI BAT", Jon Maia zuzenduta

DANI OIARBIDE Nazioen Mundua ekimenaren kideak aurkeztuta

Dorretxean. Doan

mailasunean



parrandan



Euskaraz irakurri eta gozatu



Kanpaina Altzora euskara elkarteak bultzatu du Sondikan; Tximintx euskara elkarteak, Derion; Lagatzu euskara elkarteak, Zamudion; Zorritzketan euskara elkarteak, Lezaman; eta Arrekikili euskara elkarteak, Larrabetzun.

“Irakurri, gozatu eta oparitu” egitasmoari Liburuaren Nazioarteko Egunean –apirilaren 23an– eman zitzaion hasiera eta ekainaren 30era arte iraungo du. Aipatutako herrietako udal liburutegietan euskarazko liburu bat maileguz hartzen duenak fitxa bat jasoko du, hura itzultzen duenean. Fitxa horretan bere iritzia eman beharko du liburuari buruz: zer da gehien gustatu zaiona, zergatik, zerbait aldatuko lukeen... Fitxa bete ostean, liburuazainak % 25eko balioa duen erosketa-txeke bat emango dio, eta txekea euskaraz dagoen beste edozein liburu erosteko erabili ahaliko du. Irakurlea Txorierriko euskara elkarteetarik baten kidea edo berbalaguna bada, % 50eko balioa duen erosketa-txekea jasoko du.

Txekeak Sondikako liburu-dendan erabili ahaliko dira, Arinka Derioko liburu-dendan, Zamudioko liburu-dendan eta Elkar argitaletxeak Bilbon dituen dendetan. Horrezaz gainera, ekainean Larrabetzun egingo den Literaturia azokan ere egongo da txekeak trukatzeko aukera. Bestalde, maiatzan eta ekainean liburu-

Txorierriko euskara elkarteek “Irakurri, gozatu eta oparitu” kanpaina jarri dute martxan Topagunearekin batera. Egitasmoa adin-tarte guztietako txorierritarrei dago zuzenduta eta, besteak beste, irakurketa sustatzea eta euskararen erabilera gozagarria bultzatzea ditu helburu.

tegiek 30 euroko erosketa-txeke bana zozketatuko dute egitasmoan parte hartu dutenen artean. Era berean, egitasmoaren funtzionamendua azaltzen duten orri-markatzaileak banatuko dituzte.

Kanpainen txorierritar guztiek har dezakete parte, euren adina edozein dela ere: eskoletako eta institutuko ikasleak, euskara elkarteen bazkideak, Berbalagun proiektuan dabilen lagunak, euskararen ikas-prozesuan dagoen edozein pertsona eta liburutegien erabiltzaileak, adibide banaka batzuk jartzearen.

Helburuak

Egitasmoaren arduradunek azaldu dutenaren arabera, “Irakurri, gozatu eta oparitu” kanpaina hainbat helburu ditu bere baitan. Hala, irakurtzeko ohitura sustatzeaz gainera, euskararen erabilera gozagarria ere bultzatu nahi dute. “Egitasmoak kulturak eman dezakeen plazeraren

Kanpaina adin-tarte guztietako herritarrei dago zuzenduta eta ekainaren 30era arte iraungo du

aldarrikapena egiten du, eta euskara kontzeptu horien bien arteko lokarri bihurtzen du”. Elkarteetako bazkide diren herri eta auzoetako euskaltzaleak liburutegi publikoen erabiltzaile aktiboak bihurtzea ere badute helburu, eta elkarlana sustatzea kanpainen parte hartzen duten guztien artean: euskara elkarteak, liburutegi publikoak, tokiko hedabideak, liburudendak, irakurleak, ikastetxeak... Gainera, uste dute egitasmoa ekarpen bat izan daitekeela liburuaren ekoizpena eta salmenta areagotzeko, eta euskal idazleek sortzen jarrai dezaten laguntzeko.




lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultoriioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak




94 455 56 19

Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama



ASIER BIDAURRAGAZA
Sondika

Udalbatza bahituaren kasu pollita
Karlos Linazasoro

Irakaslea naizen aldetik, urtean zehar eskolan erabiltzeko, "gazteen begiekin" irakurri behar izaten ditut liburu asko. Bitartean liburu arin eta dibertigarriak irakurtzea dut atsegin. Azkenengo irakurri dudana hau da. Hasieratik amaiera-ra barre-algaraka irakurtzeko modukoa da, istorio ironiko eta absurdo hutsa, gi-zakiok elkar ulertzeko ditugun zailtasu-nak erakutsi nahi dituen.



AMAGOIA GUEZURAGA
Zamudio

Arotzaren eskuak
Alberto Ladron Arana

Eleberria da gehien gustatzen zaidan generoa. Liburu honek misterioa eta gai historikoa lotzen ditu, eta erraz irakurtzen da. Korapiloa Nafarroako baserri batean hasten da eta II. Mundu Gerrako gertaera eta ondorioekin lotzen da.



LEIRE CLARAMONTE
Larrabetzu

Nur bilduma
Toti Martinez de Lezea

Asko gustatzen zait bilduma hau, liburu bakoitzean gai desberdin bat dagoelako. Horrela interesgarriagoa da. Gainera, han agertzen diren pertsonaiak benetan existitzen dira.

Herritarrek ideia batzuk eman dizkigute



JON REMENTERIA
Lezamako gaztelekua-ren arduraduna

Kutsidazu bidea Ixabel
Joxean Sagastizabal

Liburu hau aukeratu dut bertan hainbat balore erakusten direlako. Era berean, agerian uzten du aukera asko daudela euskara ikasteko nahiz bere erabilera bultzatzeko.



ALAZNE ARRIORTUA
Derio

Ehun metro
Ramón Saizarbitoria

Zure bizitzako azken ehun metroak izan daitezke. Zer bururatzen zaizu, zer oroitzen duzu? Nobela honekin, murgil zaitez gaur egun pil-pilean dagoen gai batean: polizia-jazarpena. Interesgarria da oso idazleak gaiaren inguruan eskaintzen digun ikuspuntu-aniztasuna, kontatzeko teknika modernoak erabiliz. Beraz, irakurtzea gustatzen bazaizu, ez ezazu gal eleberri eder honekin gozatzeko aukera!



ITSASO DOMINGUEZ
Lezama

Riomundo
Jon Maia

Zerk definitzen du Euskal Herria? Gure historiak, gure geuk akaso, euskaldunok. Gurean, barrez, maketoak edo trenak ekarritakoak izan dira beti "besteak", gutarrak ez direnak. Liburu honetan, Jon Maiak euren ikuspuntutik kontatzen digu istorioa, tripetatik aurkeztuz Errepublikatik Trantsiziorako garaia. Gordin eta era berean goxo, benetan gomendagarria!



UXUE HERNANDEZ
Larrabetzu

Marta ispiluaren aurrean
Teresa Calo

Nik nerabezeroari buruzko liburuak ditut gustukoen, gazteon gorabeherak irakurrita, gehienetan neu sentitzen naitzelako protagonista. Misterioei eta gai-xotasunei buruzkoak ere asko gustatzen zaizkit. Liburu hau 17 urteko neska bati buruzkoa da. Gazte hura anorexiak jota hil zen, eta orain dagoen leku horretatik, bere bizitzaren azken hilabeteak gogoratzen ditu ispilu baten aurrean.




TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ama
taberna
Leizaola plaza, 3 - Leizaola (Zamudio)
94 455 93 49


HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

"Punka etengabeko haustea da"

t/a: Gaizka Eguzkitza

Zelan hasi zinan musika munduan?

Larrabetzuko musika eskolan ikasi neban. Lagunoi rocka gustetan jakun eta primeran pasetan genduan kontzertuetan-eta, baina zerbait botetan genduan faltan: gure gurariak, publiko moduan, ez ziran betetan. Beraz, guk gura genduan guk geuk egitea erabagi genduan eta OGT taldea sortu genduan. Taldeak pare bat urte iraun eban eta azkenean bertan behera gelditu zan.

Eta gero Frantzeska taldean sartu zinan...

Bai. Musikea jotzen jarraitu gura neban eta 2008an Bilborrock aretora joan nintzan, bertan taldeek hainbat iragarki jartzen dituelako partaideak topetako. Hareetako bat, zikinena alegia, Frantzeskarena zan. Erantzuna emon neutsien eta taldean hartu ninduen.

Zer da Frantzeska?

Gitarra batek, baju batek eta bateria batek osatutako taldea. Orain arte, disko bi (*F*, 2009an, eta *Basauri ON!*, 2013an) atera doguz. Egia esan, oso disko antzekoak dira, kantak garai berekoak diralako. Gure ustez, bigarrena lehenengoaren "bonus track" dalakoa da, hau da, jarraipena. Lehenengo guk geuk grabatu genduan eta bigarrena, Basauriko lehiaketa irabazi eta gero lortutako sariari esker.

Zelan izan zan Basauriko musika lehiaketa hori?

Lehiaketa guztietara aurkeztzen gara. Eta Kanarietara edo Alemaniara joan behar badogu, prest gagoz joateko. Eta Basaurin be aurkeztu ginan eta irabazi egin genduan. Harremana ez zan oso ona izan bertako antolatzaileakaz, baina oso grabaketa txukuna egin genduan eta pozik gagoz ateratako diskoagaz.

ANDER MATEOS | Frantzeska musika taldeko kidea

Ander Larrabetzuko musika eskolan hasi zan gitarra jotzen. Gazte-gazte zala OGT taldea osatu eban lagunakaz, eta taldea bertan behera gelditu zanean, Frantzeska taldean sartu zan. Derioztarrak punk-rocka egiten dau Iker eta David taldekideakaz batera, baina beste estilo batzuk be jorratzen ditue: jazz, reggae... Orain arte disko bi atera ditue: *F* eta *Basauri ON!*



"The Clash nire talderik kutunenetarikoa da. Musikari jagokonez, 1980ean gagoz"

Punka, rocka, jazz, ska, reggae... Oso estilo ezberdinak dira. Posiblea da honeek guztiak jorratzea?

Gure ustez, normala da. Nire talderik kutunenetarikoa The Clash da, eta eurek be nahasketa hori egiten eben 1980an. Musikari jagokonez, geu be bagagoz 1980an. Estiloei buruzko eztabaidea sarritan sortzen da eta kakoa da bakotxak zelan ulertzen dauen punka: The Clash taldeko *London calling* abestia punk estilokoa da. Punka musika mota baino, bizitzeko era bat da: gitarra joteko modua, telebista ikusi edo amatetako modua... Punka rock azkarra eta sinplea da. Eta etenbako haustea: zerbait barria egin dozunean, beste gauza barri bat egin behar dozu, eta holan behin eta barriro... Pier Paolo Pasolini poeta italiarrak esaten

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txartelari etorbidea, 8-4
41010 Sevilla
48100 Derio

Telefonoa: 94 454 44 19
a.amondarain@sevilla.es

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearion Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefonoa: 944 543 708

Albaitaritza **HENAR ORTUONDO**
AL BAITARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaia)

DERIO

LARRIALDIAK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatuak: 1815



*"Gustetan jaku geure
buruari editatzea.
Koilara erosi
beharrean, koilara
egin gurago dot"*

Egia da, karrera ikasten ibili nintzan, baina azkenean itxi egin neban. Karrera gauzak egiteko biztugarria izan beharrean, eragozpenak jarten eustazan nik gura nebazan gauzak egiteko. Amari esker, itxi ahal izan neban. Eta eskerrak emon behar deusdaz amari beti nire ondoan dagoalako. Karrera itxi arren, beti nabil leku batetik bestera gauzak egiten: musikea taldeagaz, film laburraren bat...

eban bizitzea aurreko lerroan dagoala, hau da, beti hausten, gauza barriak egiten saiatu behar zarala.

Ez dozue managerrik. Hori ona ala txarra da?

Manager barik behar gehiago dozu: musikaz arduratzeaz gainera, esate baterako, deiak egin behar dozuz taldearen barri emoteko. Guk Taupaka alkartean gagoz eta eurek hau proponiduten dabe: kultura guztiona da eta norberak berea editateari ekin behar deutso. Alkartean beste talde batzuk be badagoz: Siroka, Norte Apache, Sobieht... Gustetan jaku behar egiteko era hori, hau da, zure lana zuk zeuk egitea. Koilara erosi beharrean, koilara egin nahiago dot.

Taldeko izena bitxia da. Nondik dator?

Lehen Iralan, Bilbon, egiten genduzan entseguak eta hara joateko San Frantzisko auzotik pasau behar genduan. Bertan hainbat emakume dagoz beharrean, kalean, eta eurei omenaldia egiteko, Frantzeska izena jarri geuntsan taldeari.

Orain uda dator. Proiekturen bat dozue esku artean?

Guretzat negua uda baino hobea da. Izan be, neguan tabernetan eta gaztetxe-

etan joteko aukerea dogu, baina udan, herrietako jaietan, talde famaduek baino ez dabe jotzen. Eta gu ez gara famaduak. Dana dala, prest gagoz edozein plazatan joteko. Eta horretarako egiten dogu behar.

Musikea da zure beharra gaur egun, baina Arte Ederrak ikasten hasi zinan. Zer gertatu zan?

Harremanetan jartzeko:

Taupaka Elkartea
www.taupaka.com
taupaka@gmail.com
688 840 713



Untzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 00 | info@txorierri.net
48160 - DEIÑO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net
Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

**ATE IREKIEN
JARDUNALDIAK**
(18:30etatik aurrera)

Apirilaren 16an
Maiatzaren 2an
Ekainaren 4an

BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioko Teknikaria

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Teknikaria
- Produktzioa Programatzeko Teknikaria
- Automatizazioa eta Informatikako Sistemetako Teknikaria
- Salmenten eta Merkataritza esparruen Kudeaketako Teknikaria
- Ingunumen Hezkuntza eta Kontrolako Teknikaria





Argiteria publikoko zerbitzu integral berria

Aurrezte energetikoa, ekonomikoa eta ingurumenarekiko adeitsua

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak udal zerbitzu-eredu berriztatzaile bat jarri du martxan: Argiteria publikoko zerbitzu integrala. Zerbitzua garatzeko orduan, batez ere eraginkortasun eta aurrezte energetikoa, argimailen optimizazioa eta instalazioen funtzionamendu egokia hartu dira kontuan.

Helburuak

–Energia-kontsumoa eta CO₂-aren isuria % 56 gutxitzea.

–Neurrigabeko argiztapena zuzentzea, beharrezkoa den lekuetan eta momentuetan argizatuz eta argi-kantitatea egokia erabiliz.

–Eraginkorrak ez diren eta egoera onean ez dauden instalazioak egokitzeta eta hobetzea.

–Argi-kutsadura gutxitzea, eta, horrela, zerura igortzen den argiak sortzen duen ingurumen-inpaktua ekiditea.

Inportantea da gogoraraztea zerbitzu-ereduak eta haren helburuek gaur

egungo araudiak betetzen dituztela: Behetentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa, Kanpoko argiak dituzten instalazioen Eraginkortasun energetikoko Erregelamendua eta Gau-ingurunea babesteko Legea. Helburuak Mankomunitatea osatzen duten sei udalerrietan egin diren auditorien emaitzetan daude oinarrituta.

Zerbitzu-eredua

Zerbitzua TECUNI S.A. enpresarekin kontratatu da, zerbitzu energetikoak ematen dituen enpresa dena, eta argiteria publikoari lotuta dauden aspektu guztiak hartzen ditu bere baitan. Zerbitzu hauek emango dira:

–**Energia kudeatzea:** elektrizitate-hornidura kudeatzea eta monitorizazio-sistema baten bidez kontsumoak kontrolatzea.

–**Mantentze-lanak:** prebentziozko mantentze-lanak egitea, instalazioak eta haien osagarriak era egokian ibil daitezen, eta instalazioen errendimenduak denboran irautea lortzeko.

–**Funtzionamendu-bermea:** instalazioaren matxurak edo hondatzeak konpontzea. 24 orduko zerbitzua egongo da, urtearen 365 egunetan.

–**Instalazioak hobetzea eta berriztatzea:** hasierako inbertsioa egingo da, gaur egungo instalazioak egokitzeko. Eraginkorrak ez diren edo hondatuta dauden argien orde berriak jarriko dira, argiztapen-mailak egokitu dira, eta sistemak ipiniko dira, orduan eta kaleetan dagoen zirkulazioaren arabera kontsumoak erregulatuko.

TECUNI, S.A.:
24 orduko zerbitzua.
Tel.: 94 497 00 36



Haur-gizentasuna prebenitzeko kanpaina

Gehiegizko pisua duen lau urteko ume batek % 20ko aukera du loditasuna duen heldua izateko


Gehiegizko pisua duen nerabe batek % 80ko aukera du loditasuna duen heldua izateko

MUTIKOAK

Zazpi urtetik hamar urtera bitarteko mutikoen % 31,2k gehiegizko pisua du. Hamaika urtetik hamalau urtera bitarteko mutikoen % 36,1ek gehiegizko pisua du.

NESKAK

Hamabost urtetik hamazortzi urtera bitarteko nesken % 32,8k gehiegizko pisua du.



*Miren Sagarra
eta Jon Barazki*

Bizkaiko Medikuen Elkargoak kanpaina bat bultzatu du haur-gizentasuna prebenitzeko, eta Txorierriko Mankomunitateko Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzuak bat egin du harekin. Kanpainak helburu hau du: haur-gizentasuna prebenitzearen garrantzia gurasoei jakinarazi eta arazo honekiko sentikor bihurtzea.

Gehiegizko pisua eta loditasuna oso arriskuak dira osasunerako, eta XXI. mendean dauden osasun publikoko arazorik larrienetarikoz batzuk dira. Gehiegizko pisua edo loditasuna duten umeek helduak direnean ere edukiko dute, ziur asko, eta diabetesa eta gaixotasun kardiobaskularrak izateko aukera gehiago edukiko dituzte. Lokomozio-aparatuen arazoak problematika honi lotuta dauden eta helduaroan agertzen diren beste gaixotasun batzuk dira, bereziki artrosia eta minbizi mota batzuk, hala nola endometrikoa, bularrekoa eta kolonekoa. Gaixotasunak hartzen den kalorien eta erretzen diren kalorien arteko desorekaren eraginez sortzen dira.

Gehiegizko pisua eta loditasuna sortzen dituzten faktoreak:

- Koipe eta azukre asko duten elikagai hipokaloriko gehiegi hartzea.
- Egoneko bizitza izatea, eta, ondorioz, gorputz-ariketa gutxi egitea.

Euskadiko umeen ia % 16 lodi dago eta % 13k gehiegizko pisua du, hau da, Euskadiko hiru umeetatik batek dagokiona baino pisu handiagoa du.

Arazoari aurre egiteko, ezinbestekoa da hura prebenitzea. Umeak hezi behar dira, baina batez ere gurasoak. Horretarako, hitzaldi batzuk antolatu dira, herritar guztiei zuzenduta daudenak eta doan izango direnak. Hitzaldiak hauek emango dituzte: mediku boluntarioak, Gurutzeta eta Basurtuko ospitaleetako endokrinologian eta nutrizioan espezialistak, pediatrak eta EHUKo Medikuntza Fakultateko medikuak. Aitor Elizegi sukaldari ezagunak ere hartzen du parte kanpainan.

HITZALDIAK

NON	NOIZ	ORDUTEGIA	IZENA EMATEA
Derioko Kultur Birikan	Maiatzaren 28an	19:00etatik 21:00etara	Apirilaren 29tik maiatzaren 21era
Sondikako Kultur Etxean	Irailaren 17an	19:00etatik 21:00etara	Irailaren 2tik 16ra
Lezamako Uribarri Topalekuan	Azaroaren 19an	19:00etatik 21:00etara	Azaroaren 4tik 15era



“Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik.”

SUITE DELUX
MARKA ESKLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

Hästens

etc

JENSEN

auping

Colchonería Leioa
La Avanzada 80,
(Bilborako norabidea)
944 316 516

Colchonería Arteaga
Derioko Seminarioa,
(eguerdian zabalik)
944 345 147

Lotara Koltxoi-Denda
Errebal 19, Eibar
943 202 784

www.SUITDELUX.com

“Euskara pertsonak dira”

JOSEBA BUTROE | Irakaslea

Joseba Butroe euskaltzale peto-petoa da: Euskal Filologiako lehen promozioiko ikasleetariko bat izan zen, EGA azterketa prestatzen duen taldean aritu da eta gaur egun Euskaltzaindian dabil lanean. Jaiotzez lezamarra da, baina lana dela-eta Algortan bizi da, bertako institutuan katedra atera zuenetik. Josebarekin solasaldi luze eta atsegina izan dugu bere ibilbideari eta euskarari buruz.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Euskal Herrian abian jarri zen Euskal Filologiaren lehenengo promozio-koa zara. Nolako urteak ziren?

70eko hamarkadako azken urteak eta 80ko hamarkadako lehenengo urteak ilusioz betetakoak izan ziren, jendea mugitzen hasi zelako euskara sustatzeko: bertsoaritzatxapelketak antolatzen ziren, ikerketa filologikoak... Oso giro bizia zegoen. Borondate oneko lagunak zeuden, bai ikasleak, bai irakasleak. Eta talde polita osatu genuen karreran. Gaur egun, batzuk oso ezagunak dira: Joseba Sarriandia eta Juan Manuel Etxebarria idazleak, esate baterako.

Zer egin zenuen karrera amaitu eta gero?

Oposaketak prestatzen hasi nintzen, institutuko katedrara aurkezteko. Garai hartan oso gogorrak ziren. Nire epaimahian, besteak beste, Juan Luis Goikoe-txea derioztarra eta Koldo Mitxelena egon ziren (bost epaile ziren guztira). Bost plaza egon ziren eta 38 lagun-edo aurkeztu ginen. Hiruk atera genuen plaza bana eta beste biak libre gelditu ziren. Eta 23 urterekin institutuko katedra atera nuen. Oso gutxi ginen katedradunak.

Zamudioko eskolan euskara irakasle ere ibili zinen...

Bai. Hiruzpalau urte eman nituen han. Gogor ikasi behar izan nuen, metodologiari eta didaktika-materialik ez zegoela-

ko. Gainera, ez nuen eskarmenturik. Gaur egun ere, horrelakoak gertatzen zaizkie irakasleei: gaia menperatzen dute, baina ez dakite ezer ikasleak tratatzeko teknikei buruz. Garai hartan, irakasleak oso gogor-rrak ziren, erdaldunak... Gu, aldiz, lagun koadrila bat ginen. Nahiko esperimentalak izan ginen eta oso gogorra izan zen.

Nolako harremana izan duzu euskararekin?

Fase desberdinak izan ditut. Gaztetan lagun euskaldunak eta erdaldunak nituen, baina 14 urte nituela hasi nintzen lagun euskaldunak berriro topatzen. Derioko Seminarioan ikasi nuen eta han, besteak beste, Mikel Zaraterekin eta Pedro Mari Goikoetxearekin egin nuen topo. Giro euskalduna sortu zen han eta ni eroso sentitzen nintzen. 1974-1975 urteetan Frankoren kontrako adierazpenak egon ziren: guk, esate baterako, ikur-rrina tindaturik jarri genuen Seminarioko dorrean. Mikel Zarateri esker ere konpromiso handiagoa hartu genuen. Hamasei urterekin euskara eskolak ematen nizkien auzokide nagusi batzuei eta eurek ordaintzen zidaten dirua erabiltzen nuen euskaraz idatzitako liburuak erosteko. Euskararekin nuen harremana apurka-apurka hazi zen.

Euskaltzaindian egiten duzu lan. Batzuek diote akademiak ez duela ezertarako balio. Zer esango zenieke?

Euskaltzain urgazlea naiz, laguntzaillea, hau da, noizean behin irizpideak ema-



Joseba Butroe

- Joseba 1960ean jaio zen **Lezaman**.
- Euskal Filologia karreraren **lehenengo promozioiko ikasleetako** bat izan zen 1978an, Deustuko unibertsitatean.
- Karrera bukatzean, **institutuko katedra** lortu zuen Getxo 3 institutuan. Gaur egun, institutuak Aixerrota du izena eta Josebak bertan ematen ditu eskolak.
- Euskaltzain urgazlea** da, hau da, aholkulari egiten du lan Euskaltzaindian.
- 25 urte eman du **EGA azterketaren** lan-taldean lanean. Iaz utzi zuen.

“Batueraren defendatzailea izateak ez du esan nahi euskalkiak baztertu behar ditugunik”

“Ez dakit euskarak batuerari esker iraungo duen, baina batuerarik gabe euskara hilda egongo zen”

“Ez dakit zenbat errepide gehiago behar ditugun, baina euskarak laguntza behar du”

ten dizkiet, batzordeetan hartzen dut parte... Nire ustez, Euskaltzaindia beharrezkoa da. Ingelesak, esate baterako, ez dute hizkuntza akademiarik, baina haren ordez ospe handiko erakunde batzuk dituzte: Oxford eta Cambridge unibertsitateak, adibidez. Hemen ez dugu horrelakorik, eta batzuetan oker dabilen arren, Euskaltzaindia behar dugu, irizpideak eta ereduak emateko. Eta gero, bakoitzak nahi duen moduan erabil dezala euskara.

Euskara batuaren defendatzaile sutsua izango zara, orduan.

Bai. Betiko eztabaida da. Mikel Zarak ere sekulakoak entzun behar izan zituen batueraz idazten hasi zenean. Batueraren defendatzailea izateak ez du esan nahi euskalkiak baztertu behar ditugunik. Batuera eta euskalkiak bateragarriak dira. Ez dakit euskarak batuerari esker iraungo duen; ziur nago, ordea, batuerarik gabe euskara hilda egongo zena. Batuera eredu da eta hori beharrezkoa da, eredurik gabe anarkia dagoelako. Batuerak ez dio euskarari kalterik egiten; jokabide traketsak, bai, ordea. Ikasten genuenean, hau esaten zen: “¿En euskera? Si no se entienden ni ellos...”. Egia zen. Hala ere, gaur egun batuerak agerian utzi du euskara ikas eta irakats daitekeela. Euskara batuera duela 50 urte sortu zen eta munduan ez dago hizkuntza bateratzeko ahalegin parekorik. Txapela kentzeko modukoa da.

Batzuek herriko euskara aldatzen ari dela leporatzen diote batuerari...

Bai, baina hori normala da, herriko jendea ere aldatzen delako. Eta, adibidez, Lezamako euskara Lezamako lagunak dira. Euskara ez da hor dagoen zerbait, airean dagoen gauza etereoa; euskara pertsonak dira, eta pertsonak zaindu behar dira. Hizkuntzak existitzen dira pertsonen erabiltzen dituztenean. Bestela, akabola!

Zelan imajinatzen duzu euskara 40 urte barru?



Berrogei urte eternitatea da. Batek daki! Batzuek ziurtzat ematen dute euskararen etorkizuna, baina nik ez dut hain argi ikusten. Arabiarrek hau diote: aita game-luan ibiltzen zen; ni, Rolls Royce autoan; semea, jet pribatuan; iloba agian berriro gameluan ibiliko da. Eurek onartzen dute gauzak aldatu ahal direla edozein momentutan. Ezin da beti gorantz joan...

Ezkorra zara, ala?

Ez. Euskaldunok euskara batuari esker badugu aurrera egiteko oinarria, eta hortik abiatuta, salto serio batzuk eman behar ditugu. Alde batetik, nork bere burua inplikatu behar du, eta bestetik erakunde publikoak ere inplikatu behar dira. Administrazioak baliabideak jarri behar ditu euskararen alde. Esate baterako, teknolo-

EGA azterketa

Joseba Butroek euskarari eta hezkuntzari lotuta eman du bizitza. Ildo honi jarraituz, Euskara Gaitasun Agiria (EGA) azterketaren arduraduna ere izan da. Eztabaida sutsuak daude agiri horren inguruan. Josebaren iritziz, jendeak ez daki zein den EGAK eskatzen duen maila. “EGA Administrazioak ematen duen titulua da eta gainditzeko duenak euskaraz dakiela bermatzen du, besterik ez. EGA ez da inoiz irakas-

lea izateko titulua izan, ez kazetaria izateko, ez itzultzailea izateko... Jende askok gainditzeko badu, oso erraza da; jende gutxi gainditzeko badu, ordea, zorrotzegia”.

Iaz bere ardura utzi zuen, arazoak eta desadostasun handiak zituelako administrazioiko lagunekin. “Europako Hizkuntzen karta sortu zuten, hizkuntzak arautzeko. Horrek sei mailatan banatu zituen hizkuntza-azterketak eta EGA bosgarren pos-

gia berrietan inbertitu behar da, langile liberatuak behar ditugu... Egunkari euskaldun bakarraren zuzendariak ezin du egunkari erdaldun baten telefonista batek beste kobratu. Ezin da boluntarioekin ibili. Gaur egun Administrazioak egiten duen hizkuntza-politikarekin ez dator bat: ezin da pertsona bat kontratatu, eta gero hori liberatu euskara ikasteko; Bilbon gaur egun Irakasle Eskola batek gaztelaniaz hezten ditu irakasleak. Politika faltsu horiek jarraituz gero, txarto ikusten dut etorkizuna. Euskara ezin da beti azkena izan. Garestia da, bai, baina beste gauza batzuek ere badira garestiak, eta dirutza gastatzen dute haietan. Ez dakit zenbat errepide gehiago behar ditugun, baina euskarak laguntza behar du.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira hizkuntzaren erronkak?

Euskarak ingelesarekin bizi izaten ikasi behar du. Izan ere, munduko lehenengo hizkuntza da. Eta zorionez, ingelesa eta euskara antzekoak dira, euskara eta gaztelania baino askoz antzekoagoak, alegia: hitz-elkarteak, egiturak... Ingelesa geure bigarren hizkuntza izan beharko zen eskolan. Nigatik, kalean ikasten den gaztelaniarekin, nahiko. Ingelesa eta euskara osagarriak direnez, mesedegarria da ikasle-entzatz biak ondo ikasteko. Gaztelaniak kalte handia egiten digu, hizkuntza erro-manikoak beste era batean antolatzen direlako: erlatibozko esaldi asko daude... Baina Euskal Herrian hizkuntza nagusia gaztelania da eta ekartzen digun eragina ez da batere zuzena: azkenean batzuek *euskañolez* egiten dute: erdia euskaraz, erdia gaztelaraz.

tuan jarri zuten. Bestalde, ALTE Europa-ko hizkuntza-aztertzaileen elkartean gaude, eta horrek adierazten du goimailako elkarteak garela, baina horretarako baliabideak behar dira, ez gaur egun daudenak. Holandako elkartean 150 lagun dabilta lanean azterketari buruz, eta hemen boluntarioek osutako koadrila gara. Eta horrela ezin dugu jarraitu. Ahalegin handia egin dugu han egoteko, baina Jaurilaritzak ez du baliabide gehiagorik eman nahi. Herriko tailerrean ezin da Ferrari bat egin”.



SARRERAK AURRITIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordua bat lehenago





SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefona 94.453.64.13

ANTZERKIA

LA LECHUGA
Glu glu Producciones
Maiatzak 25, 20:00etan
Prezioa: 10 €





Izaera herrikoia berreskuratzen

San Isidro jai-batzordea igaz osatu zan herriko jaiak antolatzeko. Euren esanetan, herriarengandik herriarentzat egindako ekintzak izan ziran joan dan urtekoak, eta horregaitik erabat arrakastatsuak be bai. Aurtengo jai-egitarauak be ume, gazte, heldu zein nagusiei zuzendutako ekitaldi-sorta zabala ekarriko deusku.

a: San Isidro jai-batzordea

Herriko alkarteek apirilaren 2tik daroe "Herria martxan, martxa herrian" ekintzarako entseguak egiten. Jai-batzordetik azaldu daben moduan, sekretua da talde bakotxa prestaten dabilena, baina ahopean esaten danaren arabera, oso ekintza itxurosoa izango da. Ekitaldia igaz antolatu zan lehenengo aldiz Tximintx euskara alkartearen eskutik, eta oso arrakastatsua eta parte-hartzailea izan zan. Hain arrakastatsua, ezen Topagunea Euskera Alkarteen Federazioak egitasmoa beste herri batzuetan aurkezteko gonbitea egin eutsien antolatzaileei. Ekintzea Herriko plazan izango da pregoia irakurri baino lehen. "Pregoia Tximintxek irakurriko dau. Alkarreak 10 urte bete ditu eta jai-batzordetik omenaldia egin gura deusagu: alde batetik, euskerearen alde egin dituan milaka jarduerakaitik; eta bestetik, herriko jaietan betidanik euki dauan parte-hartzeagaitik".

Maiatzaren 10etik 15era bitartean, derioztar –eta txorieritar, zergaitik ez guztien gustukoak izango diran hamaika ekintzaz gozetako aukerea egongo da Derion: azokak, txitxi-burruntzia, lehiaketak, idi-probak, jolasak eta dantzaldia, batzuk aitatzearren. Eta horreen guztien artean sukalkia azpimarratu dabe bereziki.



*Pregoia Tximintxek
irakurriko dau
alkartearen 10.
urteurrenaren haritik*

Kiroldegiaaren ondoko larretan prestauko da, eta herri bazkaria txosnagunean izango da. "Aulkia erreserbetako, euro bat ordaindu beharko da Sugoi, Mendia edo Hamaiketako tabernetan; edo Kultur Birkana, eguaztenetan eta arratsaldeko 7,30etik aurrera. Epea maiatzaren 8ra arte egongo da zabalik". Bestalde, esan beharra dago Lainomendi dantza taldeak dantzen agerraldia antolatu dauela lehenengo aldiz jai-egitarauaren barruan. Bertan inguruko 10 bat taldek hartuko dabe parte.

Bor-bor

Gaueko kontzertuei jagokenez, jai-batzordeak apustu handia egin dau aurtan be bai. Halan, bada, barikuan zein zapatuan herriko musika talde batek eskinitako kontzertua eta horreekaz batera momentuko talderik inportanteenetariko batzuk arituko dira eszenatoki gainean.

Nobedadeak

Udaletik adierazo deuskuen bezala, aurtan nobedade nagusi bi egongo dira San Isidro jaietan. Alde batetik, azokea Sollube kalean egingo da eta, halan, herrigunera hurbilduko da. Zapatuan artisautza azokea izango da egun osoan zehar; eta domekan, elikadura azokea. 32 postu jarriko dira guztira. Bestetik,

San Isidro egunerako antolatu diran idi-probetan buztarri bik hartuko dabe parte. "Aurreko urteetan hiru buztarri aritu dira, baina aurtan pisu gehiagoko harria eroan beharko dabe arrastaka –3.300 kilokoa– eta horretan denpora luzeago emongo dabenez, buztarri bi baino ez ekarteko erabagia hartu da. Buztarri bat Loiukoa da eta bestea, Santander aldekoa", azaldu deusku Jesus Lagunas Derioko kultura zinegotziak.



Lainomendi

eta eskualdeko taldeen
dantza erakustaldia

Maiatzaren 12an
goizeko **11:30ean**
Arteaga eraikinaren
alboko parkingean

*ondo pasa
jaietan!!*





urdaitegia delicatessen

amalur



Urte, 14 - 48160 DERIO
94 612 19 55
www.amalurdario.com
info@amalurdario.com

MARMOLGINTZA GOYO

SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK



Ugaldeteguren 1 ind, 10-3 nabes
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 82 93 - Fax: 94 454 98 63

Aislamientos Derio



Tabakak
Pladurrezko
sahaiak eta
apalategiak
Sabea
erregistragarriak
Isolamendu
termiko eta
akustikoa

Aurtza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com



dribbling sport

KORRIKOPAMENDUAK
FUTBOLA - SASKIBALOA
ATLETISMOA - GIMNASIA
PSIKOMOTRIZITATEA - SAREAK
GARAIBERRAK - DOMINAK
KORRIKOPAMENDUAK

AIZKORRI KALEA, 1
TELEFONO 94 454 10 01
48160 - DERIO (Bizkaia)



Txepetxa aek-euskaltegia

txepetxa@aeknet.net

**Ondo pasa jaietan
Eutsi euskaraz berba
egiteko konpromisoari**

Gorbea kalea, 5
48160 Derio
tel. 944 543 967




electricidad derio

electricitate

Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta

Aizkorri Kalea, 1 - Tel./ Fax: 94 454 01 46 - 48160 DERIO (Bizkaia)

Abelino Arraindegia



Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6



Liliak Loradenda

Jai zoriontsuak!

Erdiko kalea, 2
Telefona: 94 454 12 23

48016 DERIO
Mobila: 657 79 75 93

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sallube, 2 DERIO
Tel: 94 608 95 31

Maiatzak 10, barikua

–19:00 “Herria martxan, martxa herrian ekimena”. Biribilketea, herritik; eta jarduerak, Herriko plazan.

–20:30: Pregoia eta trakea, Herriko plazan.

–21:00: Txitxi-burruntzia, Herriko plazan.

–22:00-06:00: Kontzertuak, txosnagunean: Endemaño (Derio), Itziarren semeak, Bad Sound System, Rude Hi-Fi eta Stepi Selettah.

Maiatzak 11, zapatua

–11:00: Biribilketea.

–11:30: Sukalkia.

–11:30: Artisautza azokea, Sollube kalean.

–12:00: Umeentzako jolasak, frontoiaren ondoko pistan.

–14:00: Herri bazkaria. Sukalkia.

–19:00: Pintxo-poteoa.

–22:00-06:00: Kontzertuak, txosnagunean: Mental Eraser (Derio), Hesian, Vendetta eta Dj Bull. “Ivan y venían” izen artistikotzat dauen gazteak ikuskizuna eskiniko dau kontzertuen artean.

Jai-egitaraua**Maiatzak 12, domeka**

–11:00: Biribilketea.

–11:00: Elikadura azokea, Sollube kalean.

–11:30: Eskualdeko dantza taldeen alardea, institutuko parkingean. Lainomendik antolatua.

–16:30: Bizkaiko lau t´erdiko txapelketea. Derioko Kopea.

–18:30: Briska txapelketearen sariak banatzea, txosnagunean.

–19:00: Txitxarrilloa eta saltsa dantzen ikustaldia, txosnagunean.

Maiatzak 14, martitzena

–18:30-21:30: Xaibor diskofestea, Sollube kalean.

Maiatzak 15, eguaztena. San Isidro

–11:00: Biribilketea.

–11:30-13:30: Ume eta gazteentzako ekintzak, frontoi ondoko pistan. Euria eginez gero, frontoian.

–11:30: Mezea, San Isidro eleizan.

–12:00: Umeentzako marrazki lehiaketea, frontoiaren ondoko pistan. Euria egin ezker, frontoian.

–16:00-19:00: Ume eta gazteentzako ekintzak, frontoiaren ondoko pistan. Euria egin ezker, frontoian.

–18:00: Marrazki lehiaketearen sariak banatzea, frontoiaren ondoko pistan. Euria egin ezker, frontoian.

–19:30: Idi-probak, probalekuan.

–19:00: Txokolatadea eta jaien amaiera, Herriko plazan.



“Beraz, karpea barriz be bor-bor egongo da. Barikuan jente gehiago erakarri gura dogu eta, horregaitik, eskaintza oparoa egongo da musika estiloen aldetik: punk, ska, reggae, dancehall, elektronika... Oso gau dantzagarria izango da”. Txosnagunean gaueko 9,30ean zabalduko dabe barikuan, eta euro baten truke edalontzi berrerabilgarri bat erosi ahal izango da.

Igaz, jai-batzordeak San Isidro jaietara herrikoia itzultzea eban helburuetariko bat, eta bete-betea asmau eban. Azaldu daben moduan, jaiak “herriarengandik herriarengana” egiten diranean, herritarrek berezkozat jotzen ditue eta animatu egiten dira parte hartzera. “Arrakastatsuak izan ziran pregoia bota baino lehenagotik be. Herriko alkarte gehienek

hartu eban parte “Herria martxan, martxa herrian” ekitaldian, eta Sukalkia be inoz baino jentetsuagoa izan zan. Herri bazkarian 400 lagun baino gehiago batu ginan”. Era berean, jentetza handia ibili zan pintxo-poteoan eta pintxoak agortu egin ziran tabernetan. “Eta gauean be, ikaragarria! Helburua bete egin genduan eta gazteak herrian lotu ziran. Gainera, Txorierriko gainontzeko herrietako lagun asko be etorri ziran aspaldiko partez Derioko jaietara, eta urrunagotik be hurbildu ziran herrira. Eta hor gengoan jai-batzordekoak, herriaz harro. Egindako beharrak, emondako orduak, eztabaidek... merezi izan eban. San Isidro jaiak bueltau ziran Deriora!”.

Joan dan urtean betetako helburuari eustea espero dabe aurtan. “Horixe dalako gure egitekoa. Herriko jaiak herriak egin behar ditu”. San Isidro jai-batzordearen baitan herriko hainbat alkarte batu dira eta sare bat sortu da euren artean, gero eta sendagoa dana. Behar handia egiten dabilz guztientzako jaiak prestetako. Eta horretarako, guztion eretxiak hartu ditue kontuan.

Parte hartu
gure jaietan



**Jaiak
euskaraz bizi!**



*Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira*



**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

Especialitateak:

- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Iberikoak

Lehendakari Agirre plaza, 2
48170 Zamudio
94 452 11 14



Zamudio

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión Zamudio

Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA



BAR TXIKI

ESPEZIALITEA: TORTILLAK

Lehendakari leizaola Plaza, 6
48170 ZAMUDIO -Bizkaia
Telefonoa: 94 452 04 68



TOLDOS TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrelarragoiti ind., P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan



CEMAN
CONSTRUCCIONES

César López Guerra
Tel: 94 452 09 05
Móvil: 605 727 375

Ugaldeguren Ind., 3
26-I. partzela, 2. nabeta
48170, ZAMUDIO-Bizkaia

a: Zamudioko Udala

Udabarriagaz batera hasierea emon deusagu jaien denporaldiari. Zamudion, Pazko jaiak ospatuko ditue maiatzaren 17tik 20ra bitartean eta Eguraldi ona jai-batzordeak herritar guztiei zuzendutako ekitaldiak antolatu ditu lau egun horreetarako.

Badira ekintzak hain arrakastatsuak diranak ezen beti antolatu behar baitira. Hareetako bat Sukalki Txapelketa da, herritar asko batzen dituana eta ohiko bihurtu dana. Zaldien oztopo Lasterketa be jaietan bere lekua irabazi dauen ekintza da, helduak zein umeak gozarazoten dituana. Era berean, auto klasikoek erakusketa erabat erakargarria dan ekitaldia da. Autoak herriko kaleetan zehar jarriko dira ikusgai domekan.

Aitatutakoez gainera, Zamudioko Pazko jaiak aukera bat baino gehiago ekarriko deuskuez ondo pasetako. Umeek jolasak eukiko ditue, eta pelotazaleek zaletu seniorren arteko pelota partiduak ikusteko aukerea izango dabe. Gainera, herriko Pelota Eskolaren umeak be frontoian arituko dira: Lasa-Origosa bikotea, Ortiz de Zarate-Zarate bikotearen kontra, eta Cura-Txertudi bikotea, Botana-Zarate bikotearen kontra.

Dantzen agerraldia be izango da eta aurten Kataluniako dantza talde bat konbidatu dabe Hiru Bat dantza taldeagaz erakustaldia egitera. Bestalde, Zamudioko Kamara Korallak Udabarriko kontzertuetan hartuko dau parte, 34. aldiz egin-

Su Ta Gar eta O'Funkillo,



O'Funkillo taldea. a: Jacinto Martín

go diranak. Besteak beste, O'Funkillo eta Su Ta Gar taldeek bariku eta zapatuko gaua girotuko dabe. Su Ta Gar heavy metal egiten daben Euskal Herriko talderik inportanteenetariko bat da eta ibilpidea oso oparoa daukie. Eszenatoki gainean 26 urte daroez eta 11 lan emon ditue argitara. Taldekideek esaten daben moduan, O'Funkillo "funky andaluz embrutessio" egiten dauen taldea da. Izan be, abestietan metal, flamenkoa eta reggae be buztartzen ditue. Taldea 1997. urtean



SuTaGar taldea

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami suzua, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA

Nerea Pedraza Gola, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Magafarte
Txakolina

Irñaki 94 455 65 08
Jabi 94 452 14 31

ARITXABALETAKO HINGA ETA BILLAGAIA

75 cl.
10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen



Pazko jaietan

sortu zan eta orotara lau lan kaleratu ditue. O'Funkillo 2006. urtean banandu zan, baina sortzaileak 2010. urtean batu ziran barriro, taldea berrartzeko. Ikusmina sortuko daben kontzertuak, zalantza barik.

Goxo-goxo

Sukalki Txapelketeak hiru sari banatu ditu; guztira 300 euro. Irabazleak 150 euro jasoko ditu saritzat, 100 euro bigarren lotzen danak eta 50 euro hirugarrenak. Txapelketea Bidekoetxe parkean izango da eta parte-hartzaileek goizeko 9etan egin beharko dabe izena emotea. Sukalkia prestetako, oinarritzko osagai honek erabili beharko ditue: behi okelea, patatak, tomateak, kipulak, piper gorriak, zenoriak, idarrak, orioa eta gatza. Epaimahaioak 13:30 inguruan pasauko dira jakiak probetara. Euren erabagia 14:00etan jakinarazoko dabe.

*Besteak beste,
umeentzako ekintzak,
auto klasikoak, dantzak
eta pelota partidak
egongo dira*



Jai-egitaraua

Maiatzak 17, barikua

-19:00: Txupinazoa eta gozokiak, Sabino Arana plazan. Kalejirea, Bertokogaz eta Zamudioko txistulariak.
-20:00: Beat Box, Kultura Etxean. Perretxiko jana.
-23:00: Kontzertuak, Sabino Arana plazan: La vieja + O'Funkillo + Oxabi.

Maiatzak 18, zapatua.

Sukalki eguna

-09:00: Sukalki Txapelketarako izena emotea, Bidekoetxe parkean.
-10:00: Zaldien oztopo Lasterketea, Bidekoetxe parkean.
-12:00: Kalejirea, Bertokogaz.
-13:30: Sukalki Txapelketearen sariak banatzea, Bidekoetxe parkean.
-16:00: Umeentzako jolasak, Bidekoetxe parkean.
-18:00: Hiru Bat dantza taldea eta Kata-luniako dantza talde bat, Kultura Etxean.
-20:00: XXXIV. Udabarriko kontzertuak, San Martin eleizan: Zamudioko Kamara Korala.
-23:00: Kontzertuak, Sabino Arana plazan: Governors + Su Ta Gar + Garilak 26.

Maiatzak 19, domeka

-10:00: Ibilgailu klasikoaren erakusketea, herri osoan zehar.
-11:00: Umeentzako parkea, Kultura Etxean. Benjaminen arteko pelota partidak, frontoian.
-12:15: Zaletu seniorren arteko pelota partidak, frontoian.
-17:00: Futbolin Txapelketea, Gazte Estazioan.
-19:00: Kalaka taldea, karrajuan.

Maiatzak 20, astelehena

-12:00: Mezea. Kalejirea, Zamudioko txistulariak.
-12:30: Kopaua, eleizpean.
-16:00: Karta Txapelketea, Adintsuen Etxean.

Peñasko
arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

luz zamudio
ARGI APARATUAK



Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

hotela
jatetxea
aretxarte



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK



Rafael García Tejero

Oiz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) T: 94 406 08 08
Mobila: 607 406 613

OSKARBI
fotografoak



JOSEDA APEZETXEA

TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL: 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@cuskalnet.net

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra



Artotantxa Kalea, 8 - 1. azk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 665 70 33 12


Vértigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Zuzendaria kudeatzalea
IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA

Torreanagoiti ind. P. 8-B
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
e-mail: gonzalo@vertigo.es
Tel. 94 452 22 59 - Faxa 94 452 22 34


Ale-apaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorri Txorri

Txoriemko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**Carnicería
Charcutería
IMAZ**

MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TEL.FNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik esko
atortzeagatik



Patxi KOOP.
BANATZAILE OFIZIALA

Sakeleko telefonoa: 607 07 73 00
NEINVER pol. - Etxezarke kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
Faxa: 94 452 25 87
patxiscoop@patxi.coop




**ELORRIETA
INSTALACIONES**
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Bapo jan ezean, ez d

LOIUKO "MENDI" TALDEA

Halan azaltzen da talde honen facebook-en. Izan be, Carlos Fernandezek aitatu deuskun moduan, parranda-txuan-edo ibilteko gogoak batu ditu talde bitxi honetako lagunak. Ez da ohiko alkartea, baina herriko bizitza sozial eta kulturalaren eragiletariko bat dira, gaur egun.

a: LMT

Loiuko "mendi" taldea horren gazte ez diran hamar mutilek osatzen dabe, eta artzain alemaniar arrazako txakur eme bik. Noizean behin neskaren bat be animaten da harekaz mendira-eta joatera. Tabernak leku aproposak dira lagun barriak egiteko, eta koadrila honetako kideek herriko tabernetan, hain zuzen be, ezagutu eben alkar. "Badakizue, azkenean, zer edo zelango hartuemonak sortzen da, gustura zagoze eta laguntaldea osatzen da. Eta poteoa egiteko lotzen zarie..."

Eta poteoak mendira eroan ditu lagunak. Halan, bada, hiru urtetik hona koadrilea domekaro gelditzen da Unbetik edo inguruko mendietatik pasieran ibilteko. "Baina beti txantxa-ikutu bat gazte... Guri benetan gustetan jakuna menditik bajatu ostean egiten dogun hamaiketako dalako... Juancarren tabernara joan ohi gara indarrak barritzeko". Era berean, lagunek beste ohitura bat sortu dabe Gabon-egunerako. "Goizean goiz lotzen gara eta Unbera igoten gara. Pinu bat aukeratu eta Gabonetako apaingarriak ipinten deusaguz. Beharra amaitzen dogunean, txanpan botila batzuk zabaldu eta bertan edaten doguz. Eta gero, Juancarrenera joaten gara... Bai, badakigu, egun horreetan lar jaten da... Baina, guk hamaiketako egin behar!"

*"Guri benetan gustetan
jakuna menditik bajatu
ostean egiten dogun
hamaiketako da"*



Herriko bizitza soziokulturala indartzeko asmoa daua, Loiuko Udalak ekin-tzak antolatzen ditu aldian-aldian. Laguntaldea ekin-tzat hartzen dau parte, eta ahal dauan guztietan emoten dau laguntzea. "Halakoetan inpliketea gustetan jaku, paella lehiaketan, putxera egunean... Gainera, koadrila ekin-tza horreek egiten diranean, hazi egiten da. Behin baino gehiagotan 25 lagun inguru batu gara".

Zalapartea herrian

Lehen esan dogun bezala, Loiuko ezohiko "mendi" taldea da, eta izena aurretik ipini deusie, putxera egunaren harit. "Lehiaketan parte hartzeko, beharrezkoa zan taldeari izena ipintea, eta guk "Loiuko mendi taldea" ipini geuntsan. Momentu hatan bururatu jakuna... Beste izen bat be jarri ahalko geuntsan... Oso barregarria izan zan, kasualidadez, herriko saria eroan gendualako, eta gure izena esan ebenean jentea galdezka hasi zan: Baina nortzuk dira horreek? Badago mendi talderik Loiun, ala? Noztik?"

Talde ezezagunak zalapartea sortu dau herrian eta haren kideek alkarte formal bat eratzeke proposamena jaso dabe. Halanda be, epe laburrera dabezan planen barruan ez dago halakorik. "Gaur

ago aldapak igotzerik



*"Taldea herriari bizitza
apur bat emoteko sortu
dogu, eta geuk be
lagunakaz ondo
pasetako gunea izateko"*



egungo egoerea bada nahikoa gogorra eta guk dibertimentua ardatz nagusitzat dogula osatu dogu taldea, herriari bizitza apur bat emoteko eta geuk be lagunakaz ondo pasetako gunea izateko. Dana ezin dalako izan beharretik etxera joatea, eta etxetik beharrera! Azaldutakoa da gure

helburua; ez dogu, beraz, bestelako asmorik. Horregaitik, talde ofizial bat eratztea ez dago gure lehentasunen artean... Ez epe laburrera, behintzat".

Gaur arte moduan jarraitzeagaz nahikoa dabela esan deusku Carlosek. Eta konfesau be konfesau deuskue mendira urten barik hiru hilabete daroezala, "oso eguraldi txarra egin dau!". Udabarrian gagozala eta eguraldiak onera-edo egingo dauala aprobetxauz, ohiturea berreskuratzeko asmoa dabe. "Beste leku batera behar moduko urteera bat antolatzea be pentsau dogu; egia esan, Gorbeira joatea gustauko litxakigu". Urteera horretan eta gainontzekoetan gura dauanak emon daike izena.



KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERRIO
Tel.: 944 54 29 56

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pinxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

Eguneko menua, astoburuko menu borozia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERRIO
Tel.: 94 454 52 88

harategia - urdalategia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 • DERRIO 48160 • T: 454 52 94

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietta

Oinuen-zeharoa & Hortz-esteka
HORTZ-PLANTAK • OKTOBROSZIA ESTETIKOA
HABIRAK TEKNOLOGIAK

Dr. Arcelus kalea, 11 - 1. csk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbet plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

Futbol euskaldunaren jaialdia



a: Itzarri

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioak eta Itzarri aholkularitza enpresak futbol entrenatzaileak euskaraz trebatzeko eskola jarri zuten abian orain dela hiru urte. Horretarako, diru-laguntza jasotzen dute Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatetik eta Bizkaiko Foru Aldunditik. Aurreko urteetan bezala, apirilaren 3an ekitaldi bat antolatu zen Politeknika Ikastegia Txorierri, aurtur egitasmoan parte hartu duten entrenatzaileei eta futbol elkartei zein eskolei esker ona adierazteko. Egitasmoaren arduradunek azaldu zuten, guztira 30 lagun aritu dira eskolan, eta bost erakundek egin dute bat proiektuarekin: Gorondagane Sondikako eskola, Zamudioko Kirol Elkar-tea, Sondikako Kirol Elkartea, Arteaga Derioko eskola eta Lauro ikastola.

Ekitaldiari arratsaldeko 6etan eman zitzaion hasiera. Hamar minutuko partidak jokatu ziren eskolan parte hartu duten taldeen artean, eta esatari Angel Garitano "Ondarru" eta Haritz Gallastegi kazetaria ibili ziren. Partiden ostean, sariak banatu ziren. Aurtur egitasmoan aritu diren entrenatzaileek eta elkarteek Jon Alberdi artisauaren eskultura bana jaso zuten. Sariak Alaitz Etxeandia Lezamako alkateak, Gorka Carro Sondikako alkateak eta Iraia Iturregi, Aitziber Juaristi eta Ibai Gomez Athletic Clubeko jokalariek banatu zituzten. Ekitaldia Udane Goikoetxea kazetariak zuzendu zuen.

Koikili Lertxundi futbolariaren hitzalditxoaren ondoren, kopaua eskaini zitzaizen ekitaldira hurbildu zirenei. Bertan, aukera eduki genuen kirolaz eta euskaraz solasean egoteko.



aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48100 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontua doan

-Especialitateak:
umeak

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1. lonja - 48100 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiolasai@gmail.com

ZORIONAK!



Zorionak nago! Ama ederra zara...



Zorionak bikote!!!! Kik's partez



Olatz zabalaren Jaun-
hartzea 2013ko maiatzaren
19an izango da Getxoko santa
Maria elizan. Egun zoragarria
pasa dezala, familia osoaren
partez



Ongi etorri mundura, Aitor!!



Zure umea jaio berri da; zure arrebak urteak bete ditu; Zure lehengusina ezkondu egin da... Momentu ederrak... Ospatu txorierritar guztiekin! Eta maite dituzunak ustekabeen harrapatu!

BIDALI ZURE ARGAZKIAK

- Argazki txikia: 15 euro
- Argazki handia: 25 euro

Aikor!!agunentzat %20ko deskontua

Argazkia eta testua:

- hilaren 15a baino lehen agindu
- aikortxori@aikor.com helbidera

Lezama, pasabide garrantzitsua



t: Jabi Agirre / a: Ander Lasa

Apirilean, Lezama Bizirik auzo alkartearen Eguna ospatu genduan eta, bestek beste, Kurutze auzotik Goikoelexalde Larrabetzuko auzora doan bide zaharren zatia egin genduan oinez. M^a Jesús Fernandezek eta Ana Isabel Pradok (Eusko Ikaskuntza) idatzitako *Estudio arqueológico y documental del viejo camino Bilbao-Gernika* beharraren arabera, Lezama pasabide garrantzitsua izan da aro ezbardinetan. Hurrengo lerrootan bideari emon jakozan erabilerak aztertuko doguz.

BIDEAREN SORRERA, ERROMATARREN GARAIA

Zin Bidearen zehar, garai honetako aztarnak aurkitu dira leku honeetan: Bilbo, Berreagako kastroa, Larrabetzu, Morga, Gernika, Foru, Mundaka eta Bermeo. Komunikazio bide honen inguruko dokumentazioa Erdi Arotik aurrera hasi zan batzen; halanda be, aitatutako lekuetan topautako aztarnak eta mantendu dan bidearen tipologia haren diseinua Erromatarren garaikoa dan adierazgarri dira.

ERDI AROKO BIDEA, DONE JAKUE BIDEA

XII. eta XIII. mendeen inguruan, bidea erromes-bidea bihurtu zan. Barrualdeko bidetik aparte (Orreaga), kostaldekoa be

hasi zan erabiltzen: Gipuzkoatik Donostia, Orio, Zarautz, Getaria, Itziar eta Mendaro; eta Bizkaitik Bolibar, Zenarruza, Arbatze-gi, Arratzua, Gernika, Morga, Larrabetzu, Lezama eta Bilbo.

ZIN BIDEA

Kostaldeko Done Jakue bidea ahultzen joan zan heinean, Nafarroakoa indartzen joan zan. Halanda be, Gernikarako bideak bizirik jarraitu eban Zin Bideak eban garrantziagaitik. Bizkaiko jaunek eta Gaztelako erregeek bide hau egiten eben Foruen zina egiterakoan. Bizkaiko Foruan azaltzen dan moduan, lehenengo eta behin Bilboko ateetan egiten eben

zin eta, ondoren, San Emeterio eta San Zeledonio Goikoelexaldeko eleizan, Gernikako arbolaren ondoan eta Bermeoko Santa Eufemia eleizan.

URDUÑA – BERMEO BIDEA

Uri bien arteko komunikazio zuzena noiz hasi zan ez dakigun arren, argi dago bidea 1.300 urtean hasi zala Bilbotik pasaten, sortu barria zan uriaren onerako eta Bermeoren kalterako. Bideak Zin Bideagaz eta Done Jakue bideagaz egiten dau bat. Bestalde, aitatu beharra dago eztabaidak dirala ea Larrabetzutik Lezamarako bidea non hasten dan, urian edo goikaldean, hau da, bide zaharrean.

LEZAMA – LARRABETZU

Bide bi dagoz. Alde batetik, bide zaharra, leku honeetatik pasaten dana: Zamudio, Matsa, Athleticean landak, San Bizente ermita, Garaioltza, Alkerri, Xustine, Gandorta, Bazabal, Gaztelu eta Zarandoa. Eta bestetik, bide barria, Kurutze Lezamarako auzoa eta Larrabetzuko uria batzen dituana. Bide biak dira antzinakoak eta, konpontze-beharren haritik, herri biren arteko tirabirak be ohikoak izan dira Bide zaharra Bilbo – Gernika bidetzat jo zan arren, gero eta gitxiago erabiltzen zan eta bide barria, oster, indartzen joan zan.

Suertedunak gara geu, aurrekoen bideak berrerabili geinkezalako.



HILEKO ESKAINTZAK

Gernikako arbola, 10 -DERIO- 94 454 51 92

NIRE AUTO

Autoa maizatzean erosi
eta OPARI hauetariko
bat eraman



TomTom
Hagunak
DVDa

Kristalak tindatzea
Atoi-bola

Sabino Arana, 1-3 -SONDIKA- 94 453 04 85

GALAIISA ILE-APAINDEGIA

Familia ugari
unibertsitario eta
erretiratuentzat

%10_{eko}
deskontua



Leizaola plaza -ZAMUDIO- 94 452 14 49

RUBEN BITXITEGIA



%10_{eko}
deskontua

Izarza industriagunea -SONDIKA- 94 453 25 15

FORD GOIRI

Prezio bereziak
udaberrian-udan



Anguleri, 2 behea -LARRABETZU- 94 455 81 44

GOIZALDE PELUKERIA



ILEA
HIDRATATZEA

astearteetan-ostegunetan
maiatzean-ekainean

Aretxalde, 21 bis -LEZAMA- 94 455 56 19

LEZAMAKO ALBAITARIA



240 €

Txakur emeei
obarioak eta
uteroa kentzea

Euskerea eta kirola

Mendebalde Kultura Alkarteak euskerea eta kirola buztartzen dituan jardunaldiak antolatu ditu maiatzaren 3rako eta 4rako. Jardunaldiak Euskaltzaindiaren Aretoan izango dira, Bilbon, eta berbalagunok hara joango gara. Gugaz etorri gura badozu, izena emon beharko dozu orrialde honetako informazio-koadruan azaltzen dan telefono zenbakira deituz edo helbide elektronikora mezu bat idatziz. Ez galdu aukerea!

Juan Ramón Fernández-Lópezek, Aritz Urdampilletak eta Iker Lópezek hasikerea emongo deusie berbaldi-sailari bariku arratsaldean. Hareek azalduko dabe zein garrantzitsuak diran jarduera fisikoa eta elikadura egokia gure osasunerako. Datu bi aurreratu deuskuez: urtean 2,7 milioi lagun hiltzen dira behar beste fruta eta barazki ez jatearren, eta 1,9 milioi lagun, jarduera fisikorik ez egitearren. Kontuan hartzekoa da. Osteen, Abel Barriola eta Iratxe Ibarra pelotariak hartu-

Besteak beste, Abel Barriolak eta Maider Undak hartuko dabe parte jardunaldietan

ko dabe txandea, eta kirolagaz daben hartu-emonazalduko deuskue.

Koikili Lertxundi futbolariagaz kirolaren oinarriak zeintzuk diran argituko doguz. Horretarako, kirol bakotxean dagozan onurak eta gabeziak aztertuko doguz eta kirola-aisia-osasuna ereduaren garrantzia izango dogu hizpide. Azkenik, Jose Joakin Gallastegik txirrindularitza munduan egin dauen ibilpidearen barri emongo deusku.

Zapatuko jardunaldiak goizean izango dira. Maider Unda burrukariagaz



kirolak ekarri deusazan momenturik ederrenak konpartituko doguz, eta Ibon Gaztanazpi arraunlariak azalduko deusku zelan emon eban saltua trainerutik ETBra.

Erronkak

Atsedenaaldiaren ondoren, beste kazetari bat eukiko dogu hizlari: Pedro M. Goikoetxea. Harek ETBk hasieratik hona eginiko bidea azalduko deusku, eta zeintzuk arrisku eta erronka dituan bekontauko deusku.

Jose Ramon Uriarte *Katxin* zestalariak munduan zehar ibilteko suertea izan dau eta herrialde askotan euskaldun jentearen ordezkari hartu dabe. *Katxine* arlo horretan euki dauen eskarmentua emongo deusku ezagutzera. Azken berbaldia Dabi Piedra kazetariak egingo dau. Barri-emoile euskaldunek aurre egin behar deusez zaltasunak aurkeztuko deuskuz eta gerora begira zer hobetu aztertuko dau.

Berbaldi osteen, mahai-inguru bat egongo da eta omenaldia egingo jake Jose Angel Iribarri eta Iñaki Sarriugarteri.




berba lagun

INFORMAZIOA:
Telefonoa:
 635 75 35 95
E-mail:
 txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
 www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
 TOTOAN TEEF
 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea



Garmendia ardoak

Pinoia pol., P-3B
 ZAMUDIO
 Tel./Faxu: 94 452 00 49



OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
 ZAMUDIO
 Tel.: 94 452 28 18




ESTILISTA EVA ARDINES

AmAr

Astearte - Ostirala: Setatik-19etara
 Larunbata: Setatik-14etara
 Uribe Plaza, 1 - Behea 48170 Zamudio
 Telefonoa: 94 452 04 19: (Aurreko txanda)

Aita Santua ala Aitita Santua?



(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

5.000 kazetari baino gehiago izan dira Vatikanon Aita Santu berriaren aukeraketan. AIKOR! ez da joan Erromara Korrikari jarraipena egiten ibili da-eta. Dena den, badirudi katolizismoa albiste interesgarria dela hedabideetarako.

Apirileko AIKOR!ek berri biak dakartza, Korrika eta Aita Santua ezen, AIKOR! uni-bertsala da, .com ere badauka-eta.

Bestalde, katolikoen burua emakumea balitz? Orduan, Ama Santua izango litzateke, ez Aita Santua. Gainera, ez al da hobe **Aitita** Santua esatea 76 urterekin? Gure artean adin horretakoak **aitita**, aita-

xe, aitona, aita jaun, aita txi edo aitagoi izaten dira.

Frantzisko deitzen da. Gure aita ere Francisco zeukan karnetea, baina Patxo esaten zioten; beste bati, Patxi edo Patzi-ku deituko diote. Beraz, guk esan dezakegu: Patxo Aita Santua.

Frantzisko Aita Santua Jesusen Lagundikoa da eta lagundi hori Inazio Loiolakoak fundatu zuen eta Azpeitiko Loiolan dago, Urolaren aldamenean.

Bestalde, kontatzen du Kaxildo Geta-riarrak, amona bereak esan ziola:

–Aita Santuak euskaraz daki.

–Bai zera!

–Bai, neuk entzun dut euskaraz.

–Zer esaten?

–Bedeinkapena eman eta esan du: “Ongi etorri”!

–Ez amona! Ez du esan “Ongi etorri”, ezpada “Urbi et Orbi”.

Azken baten, Aita Santua edo **Aitita** Santua izan, ezin ahaztuko dugu Iruñetik Erromara 1.630 kilometro daudela. Hala ere, gauza bat egin dezake Frantzisko Aita Santuak -borondatea badauka-: ipini, jarri, emakumezkoa eta gizonezkoa maila berean. Orduan ulertuko du budisten kong-an* hau. Gaur arte, Erromako elizak esku batekin jotzen dizkio txaloak Jainkoari; esku bakarrarekin.

* KONG-AN: Monje budisten igarkizuna edo itauna, ikasleek meditazio unean hausnarketarako erabili behar dutena. Adibidez: Zer hots ateratzen du esku bakarrak txaloak jotzean?



SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

Bide garbiketa | Hondakinak biltzea eta garraiatzea | Ur eta estolda-sareak zaintzea eta mantentzea | Hiri tresneria mantentzea eta zaintzea | Lorezaintza zerbitzua | Eraikinen eta lokalak barrutik garbitzea | Hondartzak garbitzea | Garbiguneak kudeatzea eta mantentzea | Lurzorua deskontaminatzea | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

INBISA Derio Enpresa-zentroa
Astintze, 6A - 1. solairua. 48160 DERIO
www.inbisaserviciosymedioambiente.com
Tel. 94 424 38 34

Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 640 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, arakak
Auzokorren kumakak
Mantentze garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Udako amaierako garbiketa
Bantak
Zabon-ikusiak



Besalde Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Etxeko sukaldaritza



Txipiroiak plantxan

Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Kilo bat txipiroi
- 3 berakatz-atal
- Limoi eder baten ura
- Perejila
- Orioa eta gatza

Prestateko erea:

Txipiroiak ondo garbituko doguz. Handiak badira, luzetara moztuko doguz;

eta txikiak badira, osorik ipiniko doguz. Erroak barruan ipiniko doguz. Gatza botako deutsegu txipiroiei. Plantxea orio apur bategaz igurtzi eta berotu egingo dogu. Txipiroiak bota eta alde bakotxetik minutu pare baten eukiko doguz erreten. Berakatzakaz orio errea egingo dogu. Berakatzak txikitu eta, gorritzen diranean, perejilagaz eta limoi-uragaz nahastuko doguz. Orio errea txipiroi gainean botako dogu. Gustukoa bada, pipermin apur bat be bota leiteke.

Garbantzu eta ahuakate-patea

Osagaiak:

- 200 g garbantzu
- Konbu alga
- Ahuakate heldu bi
- Koilarakada bat orio
- Berakatz-atal bat (txikituia)
- Limoi-ur apur bat
- Gatza

Prestateko erea:

Garbantzuak beratzen ipiniko doguz bezperan. Garbantzuak garbitu eta konbu algagaz batera presino-eltze baten ipiniko doguz. Irakiten hasten diranean, ur gainean dagozan aparra eta azalak kenduko doguz. Eltzeari tapea ipini eta ordubete inguru eukiko doguz egosten. Oraindino eginda ez badagoz, denpora gehiago itxiko doguz surtan, harik eta bigun eta mamintsu dagozan arte. Gatza botako deutsegu eta surtan beste 10 minutuan itxiko doguz.

Eltzean dagoan saldea kendu eta garbantzuak gainerako osagaiakaz nahastuko doguz: ahuakate txikituak, limoi-ura, berakatz eta orioa. Osagaiak irabiau egingo doguz, ora krematsu bat lortu arte. Patea hotz aterako dogu mahaira.



**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO



**MODA
INFANTIL
Tximeleta**

Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelamagotti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

**Restaurante
JANA JAURETXE**



Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbolinean jokatu, etorri zaitzez Trippyra, Deriara

Betekin Kalea Baxo
DERIO

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku



**clinica dental
ZAINDUZ
hartz klinika**

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kisimasaia

Txontteri etorbidea, 9 - Larga / Arteaga auzoa / 48160 DERIO
94 454 01 01 / 952 79 54 45
info@dentalzainduz.com / www.dentalzainduz.com



Hileko galdera

Zergatik egiten dute oilarrek kukurruku, eguna argitzen duenean?

Oilarrek egunsentia datorrenean egiten dute kukurruku, baina ez dute hala egiten eguna argitzen ari duela adierazteko, baizik eta jokabide sexual arrunt bat azaltzeko. Oilarrek beren birkkek duten indarraren berri emateko egiten dute kukurruku, eta emaitzak postu bat edo beste bat emango die oilategiko hierarkiaren barruan. Hala, zenbat eta ozenago egin, orduan eta altuago egongo dira kokatuta. Egunsentiarekin ez ezik, egun osoan ere egiten dute kukurruku oilarrek, baina eguzkiak piztu egiten die, antza, kukurruku egiteko grina.

Sudokua

						4		
		1						
	2			9				7
				4	3			
8				7		2		
4	1		9					
	3	2			8		1	
	5	8	2					
	9				7		3	

2	3	8	7	1	5	4	6	9
9	7	4	9	3	2	6	1	5
7	3	2	6	8	9	1	5	4
4	1	5	8	2	7	6	3	9
8	6	3	1	7	5	2	9	4
2	7	9	6	4	3	5	8	1
3	2	6	9	4	1	5	7	8
9	4	1	7	5	6	3	2	8
5	8	7	3	2	1	6	4	9



Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 cm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu



Azokak

Larrabetzu

- > Literaturia. Maiatzaren 31tik ekainaren 2ra.

Erakusketak

Sondika

- > Jon Rodriguezen argazkiak. Maiatzaren 8tik 31ra, Erakusketa Aretoan.

Hitzaldiak

Zamudio

- > Zahartzaro positiboa izateko bizi ohi-tura osasuntsuak. Maiatzaren 17an, 18:00etan, Nagusien etxean.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* liburua. Maiatzaren 16an.

Ikastaroak

Zamudio

- > Balkoian ortuariak landatzeko eta bizkar-hezurra zaintzeko ikastaroetan izena ematea: maiatzaren 17ra arte, udaletxean.

Larrabetzu

- > "Eskubide berdintasunari buruzko pres-takuntza". Izena ematea, Angulerin.

Ikuskizunak

Larrabetzu

- > Maiatza musikala. Maiatzaren 8an eta 14an, 19:30ean, Anguleri kultur etxean;

maiatzaren 31n, 19:30ean, Andra Mari elizan.

- > Zinea. Maiatzaren 11n. Informazioa Anguleri kultur etxean.
- > Erromeria, Garilak 26 taldearen esku-tik, Hori Bai gaztetxean.

Irteerak

Sondika

- > Oketa. Maiatzaren 12an. Izena ematea: maiatzaren 9ra arte, liburutegian.

Derio

- > XXVII. ibilaldi neurtua. Maiatzaren 19an, Herriko plazan. Untza taldea.

Lezama

- > C. Pasiegas (Kantabria). Maiatzaren 25ean, 08:30ean, Herriko plazan. Gai-lur taldea.
- > Urederra (Nafarroa). Maiatzaren 26an, 09:30ean, eskolan. Gailur taldea.
- > Antiguako Ama. Maiatzaren 20an. Zorribike taldea.

Larrabetzu

- > Bizkargira igoera eta jaitsiera. Maiatza-ren 4an, 12etan, plazan.
- > Umeentzako irteera. Maiatzaren 25ean.
- > Uribarri Ganboa. Maiatzaren 26an.
- > Mendi martxa. Maiatzaren 30ean, 08:00etan, plazan.

Jaiak

Zamudio eta Larrabetzu

- > San Isidro. Maiatzaren 15ean.

Larrabetzu

- > Bizkargi Eguna. Maiatzaren 5ean.

Kirolak

Derio

- > Uribe Kosta Txapelketaren finalak. Maiatzak 4, 11:00etan, kiroldegian.
- > Taekwondo Opena. Maiatzaren 5ean, 10:00etan, Doyan klubean.
- > Areto-futbol triangeluarra. Maiatzaren 17an, 19:00etan, kiroldegian.
- > Gimnasia erritmikoa. Maiatzaren 18an, 18:00etan, kiroldegian.
- > Xake Nazioarteko Txapelketa. Maiatza-ren 26an, 10:00etan, kiroldegian.

Lehiaketak

Sondika

- > Balkoi apainduak. Izena ematea: maia-tzaren 2tik 10era, liburutegian.
- > Argazki rallya. Maiatzaren 5ean, 10:30ean. Artebe kiroldegian. Sariak ematea, maiatzaren 26an, 11:30ean, Kultur Etxean.

Derio

- > Mihiluze lehiaketaren finala. Maiatza-ren 3an, 19:00etan, Kultur Birikan.
- > Briska txapelketa. Maiatzaren 6tik 8ra, 17:00etan, Kultur Birikan.

Bestelakoak

Sondika

- > Uda kanpainan izena ematea: maia-tzaren 6tik 10era, Ludotekan.

Larrabetzu

- > Koadrila Eguna. Maiatzaren 18an.



Miresten gaitu, begirunea diogulako



ITP konpainia globala da, produktuaren bizitza-ziklo osoan zehar duen teknologia eta ingurumenarekiko begiruneagatik aerogintza eta industria motoreen merkatuan aitzindaria. ITPn kudeaketaren bikaintasunaren aldeko apostu sendoa egin dugu bai eta gure bezeroei begirako etengabeko lotura garatu ere, konpainiari eta interes-talde orori balioa emanez.



talentuaren indarra

ZURE OPORRAK DANERIK PARAJEREN KONTURA!

- ❖ Danerik Paraje saltokietan, maiatzaren 1etik ekainaren 30era egindako erosketen artean lagun birentzako bidaia bat zozkatuko da.
- ❖ Nahi izanez gero, Derioko Viajes Ecuador-en antzeko balioa duen beste bidaia baten ordezkatu ahal izango da.
- ❖ Denda bakoitzak 10 €tik gorako salmenta bakoitzeko zigilu bat ezarriko du txartelean.
- ❖ Zozketan parte hartu ahal izateko, txartel bakoitzak zigilu bi izan beharko ditu. Hauek lortu bezain laster, txartela Kultur Birikan dagoen kutxatilan utzi beharko da.
- ❖ ZOZKETA eta SARI banaketa Derioko KULTUR BIRIKAN izango dira UZTAILAREN 1EAN 19:30EAN.

